



Ane Irazabal,
Ekialde Hurbileko berri-emaillea:

**“Kontzientziak
pizteko gaude”**

TISA ituna, TTIP baino
kaltegarriagoa eta ilunagoa

Jean Echenoz, 14 nobelaz
eta Gerra Handiaz

Tanbora, mundua dardarka
jarri zuen sumendia



Troll politikoak

Inork ez ditu ezagutzen baina sare sozialetan milaka jarraitzaile dituzte. Sarkastikoak, gupidagabeak eta nekaezinak dira. Iritzi publikoan eragiteko forma berri bat sortzen ari ote dira?

- Fenomeno berri eta bitxi honi buruzko gakoak
- @aranagoiri eta @diariofatxo Twitter kontuen arduradunei elkarrizketak





Azaleko argazkia:
DANI BLANCO
Azala: ANTZA
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA



ARGIAKO edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Bego Zuza. Zuzendaria: Estitu Eizagire. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza, Xabier Letona, Pello Zubiria. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. www.argia.eus: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produzioa: ANTZA, S.A.L.

Harpidetza: Iraitx Agirre. Salmentak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoa: Aloña Sorluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Berdaitz Goia, Olatz Korta, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus. Web garapena: Asier Iturralde.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxa: 943 361048. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruñia. Tel: 559 473163. Faxa: 559 476001. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetza: harpidetza@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus. Interneten: www.argia.eus. Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iamaeta interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Euskal Herria: 145 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea da.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

NON ZER

2015eko otsailaren 15a, 2.449. zenbakia

ASTEKO GAIA

TANBORA 1815 Mundua izoztu zuen sumendia.
NAGORE IRAZUSTABARRENA / 4

PERTSONAIA

ANE IRAZABAL: «Gertatzen dena kontatzeko gaude, ez protagonistak izateko». SUSTRAI COLINA / 10

GAIK

NANCY FRASER: «Emakume pribilegiatu gutxi batzuk toki batetik bestera mugitu dira, hori da egin den guztia». ONINTZA IRURETA AZKUNE / 16

IRITZIAREN LEIHOA

FEMINISMO HEDONIKOA JUNE FERNÁNDEZ / 18

DIRU KENGARRIA ALA HEZIKETA? IÑAKI MURUA / 20

ZIGORRA RAMON ETXEZARRETA / 21

TXIKIA DIOZU? BIKOITZA! MIKEL BASABE KORTABARRIA / 22

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENTETA / 19

TXANDAN Hasiera pitoa. EDU ZELAIETA / 20

BERTSO BERRIAK IMANOL LAZKANO / 21

ERDIKO KAIERA

JEAN ECHENOZ: «Irakurtzearen, idaztearen eta ezer ez egitearen artean banatzen dut denbora». ARITZ GALARRAGA / 24

CORTO MALTESE Marinelaren guraso berriak.

GORKA BEREZIARTUA MITXELENA / 27

ZINEGOAK Afrikatik Suediara tabu sexualak gainditzen.

MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 28

ALEA Kritika gabe esaidauze nola irtengo naizen plazara.

GORKA BEREZIARTUA MITXELENA / 29

LITERATURA XABIER ETXANIZ ERLE / 30

MUSIKA JOXI UBEDA / 31

ZIENTZIA JOXERRA AIZPURUA SARASOLA / 32

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 33

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO / 34

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 35

TERMOMETROA

JOSE RAMON MARIÑO: «TISA akordioaren helburuetako bat da zerbitzuen pribatizazioek atzerakorik ez izatea». UNAI BREA / 36

ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUA Euskara poloniar erara.

MALEN ALDALUR / 40

IRREGULARTASUNAK ADMINISTRAZIOAN Diru publikoaren gestio txarra eta ustelkeria Araban. MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 42

BIDASOALDEKO URAREN KUDEAKETA Arrazoirik badago

Jaizkibel zurrupatzeko? URKO APAOLAZA AVILA / 44

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 47

EKONOMIAREN TALAIA JUAN MARI ARREGI / 47

NET HURBIL Europako patronalak lepoa moztu nahi dio

Ekonomia Zirkularrari. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

Mundua izoztu zuen sumendia

Duela 200 urte Tanbora sumendiak eztanda egin zuen. Erupzio eskergaren ondorioz, hurrengo urtean ez zen udarik izan planeta osoan. Mundua ilundu, hoztu eta Mendebaldeko azken biziraupen krisi handia eragin zuen. Gainera, itxuraz, Waterlooko guduan indarrak desorekatzen lagundu zuen. Baita Frankensteinen hazia erein ere.

| NAGORE IRAZUSTABARRENA |

Irudia: Joseba Larratxe

1815EKO APIRILAREN 5EAN, hainbat mendetan lo egon ondoren, Sumbawa uharterko (egungo Indonesia) Tanbora mendiak eztanda egin zuen. Erupzio ertaina zen. Trumoi antzeko hotsak 400 bat kilometrora entzun ziren, eta bihamunean Java Ekialdean errautsa erortzen hasi zen. Handik egun batzuetara, apirilaren 10eko arratsaldeko 7etan Sumatran, Tanburatik 2.600 kilometrora, kanoi hotsak entzuten hasi ziren. Edo hori uste zuten. Bertako osteak mobilizatu zituzten ustezko erasoari aurre egiteko. Eta, badaezpada, hainbat ontzi itsasoratu zituzten, kanoikadak arazoak zituen itsasontzi batek bota zituelakoan. Baina hots horiek Tanboratik zetozen. Erupzioa areagotu egin zen hilaren 10 eta 11n, 800 Mt-ra iristeraino; giza-kiak inoiz detonatutako arma nuklearrik indartsuenak, hau da, historiako eztanda artifizialik handienak, 57 Mt-ko indarra askatu zuen eztanda egiteko unean. Gerora, Sir Thomas Stamford Raffles britainiar gobernadore kolonialak 1830ean eta Heinrich Zollinger botanikari suitzarrak 1847an, erupzioa zuzenean ikusi zutenen testigantzak jaso zituzten. Haien arabera, “suzko hiru zutabe lurretik irten eta zeruraino iritsi ziren” eta “mendia su likidozko masa bihurtu zen”. Lekukotza horiek biltzea ez zen erraza izango, Tanborako penintsulan bizi ziren 12.000 lagunetatik soilik 40 irten baitziren bizirik.

Horrenbestez erupzioak berehalako ondorio ikaragarriak izan zituen Asia hego-ekialdeko uharteetan. Baina eztanda hark munduko bazter guztiak astinduko zituen ondorengo hilabete eta urteetan.

Udarik gabeko urtea

1816. urteari “udarik gabeko urtea” esango zioten handik aurrera. Sumendiak 1815ean atmosferara jaurtitako errauts bolkaniko kantitate izugarria mundu osoan eta, bereziki, Ipar Hemisferioan zabaldu zen hurrengo hilabeteetan. Kontuan hartu behar da, errauts igorpenak ez zirela berehala eten. Eztandak ez ziren uztailearen 15a arte eten, eta abuztuaren 23an kraterrak kea zerion oraindik. Errautsak ez zien uzten eguzki izpiei lurrera iristen eta tenperaturak izugarri jaitsi ziren: 1816ko udan, erupzioa gertatu eta urtebetera, elurra egin zuen ia hemisferio guztian, abuztuaren goizero izotza izan zuten, ekaitzak eta euri-jasak noiznahi eta nonahi. Ibaiak izoztu

ziren eta, izotzak urtzean, uholdeak izan zituzten; Rhinek berak gainezka egin zuen. Hungarian elur marroia bota zuen errautsaren eraginez; Italian, berriz, elur gorria ikusi omen zuten. Indiako montzoia, munduko klima sistema garrantzitsuena, bi urtez atzeratu zuten sumendiak igorritako gasek.

Zenbaiten arabera 200.000 pertsona hil ziren bat-bateko klima aldaketaren eraginez. Baina hainbat iturrik dio soilik Irlandan 100.000 izan zirela hildakoak

Hotza, gosea eta epidemiak

Klima aldaketa bortitzak hondamendia eragin zuen nekazaritzan. Uztak erabat suntsitu geratu ziren. John D. Post historialariarentzat Tanborak eragindakoa “Mendebaldeko azken biziraupen krisi handia” izan zen. Hain zuzen, izenburu hori ipini zion 1977an gaia- ren inguruan argitaratutako lanari.

Esan bezala, Indiako montzoia mantsotu egin zen, euri-jasak ohi baino beranduago iritsi ziren, eta kontrolaezin bihurtu ziren klima egutegi zehatzera egokituta zegoen biztanle-



TANBORA 1815

riarentzat. Osasun eta higiene baldintzek nabarmen egin zuten okerrera eta kolera, ordurarte Bengalako Golkoko gune jakin batzuetara mugatzen zena, Moskuraino zabaldu zen. Tifusa ere berehala hedatu zen, giro heze eta hotzak egokiak baitira horretarako. Europan 800.000 pertsona kutsatu omen ziren 1816an soilik.

Europak XIX. mendeko gosete handiena jasan zuen urte horietan. Premiako gaien prezioak %250 egin zuen gora Ingalaterran eta %350 Frantzian. Kontinentea gerra napoleonikoek ahulduta zegoen, gainera. Zaila da erupzioaren ondorioz hildakoen kopurua kalkulatzeko. Zenbaiten arabera 200.000 pertsona hil ziren bat-bateko klima aldaketaren eraginez. Baina zenbait iturrik dio soilik Irlandan hildakoak 100.000 izan zirela, eta Tanborak eztanda egin eta hurrengo hiru urteetan Europako heriotza tasa bikoiztu egin zela.

AEB taxutzen

Kontinente zaharrean ez ezik, herrialde berriagoetan eragin handia izan zuten sumendiaren errautsek. 1815ean, AEB jaioberrietan, biztanleria nagusiki Ingalaterra Berrian zegoen kontzentratuta, hau da, ipar-ekialdeko kostaldeko sei estatutan. 1815eko ekainaren 6an elurra bota zuen New Yorken eta bi egun geroago mara-mara ari zuen Bostonen. Pennsylvanian hainbat ibai eta aintzira izoztuta zeuden oraindik abuztuan.

Bertako biztanleak negu hotzak jasaten ohituta zeuden, baina laborantza lurrentzat gehiegizkoa izan zen. Elikagai urritasunak prezioen igoera ekarri zuen; olo upelak egungo 1,5 dolar balio zuen 1815ean eta hurrengo urtean prezioa 12,78 dolarretara iritsi zen. Artean, garraiobide sare egokirik ez zegoen eta janaria inportatzea garestiegia zen. Egoera jasanezina bihurtu zen milaka familientzat eta horietako asko barnealdera eta hegoaldera joan ziren klima atsegina goaren eta lursail

Tanboraren
kratera satellite
bidezko argazkian.
Kraterak 7 km-ko
diametroa du
egun.

NASA



Tanbora zenbakitan

1815EKO APIRILAREN HASIERAN Tanbora mendiaren garaiera 4.300 metro ingurukoa zen; erupzioaren ondoren 2.851 metrotan geratu zen. Sumendiak 160 km³ material jaurti zuen; bestela esanda, 140 bilioi tona. Horrenbestez, zuzenean erregistratutako inoizko erupziorik handiena izan zen, 2010ean Europako hegazkin trafikoa nahastu zuen Islandiako Eyjafjallajökull sumendiarena baino 10.000 aldiz indartsuagoa. Eztanda Sumatran entzun zuten, Tanburatik 2.600 km-ra eta errauts bolkanikoa 1.300 km-ra jalki zen. Sumenditik hurbilen zegoen hirian, Makassarren, metro koadroko 626 kilo errauts erori ziren. Errauts adarra estratosferara iritsi zen, lurrazaletik 43 km-ra. Lurrazelean, jarioaldi piroklastikoak 20 km-ko ingurumaria suntsitu zuen.

Jarioaldiak zuzenean 11.000 pertsona hil zituela kalkulatu da. Eztandaren ondorengo tsunamiek beste 4.600 hil zituzten. Egun Indonesiak hartzen duen eremuan, goseak eta gaixotasunek 49.000 heriotza eragin zituen. Baina hurrengo bizpahiru urteetan erupzioak zeharka mundu osoan hil zituen pertsonen kopurua kalkulazina da.



**TALLERES
MITXELENA S.COOP.**



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Talleres Mitxelena, S.Coop.

Eziago Poligonoa • Zikuñaga Auzoa • 20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 • F 943 55 28 16 • info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com



Waterlooko gudua 1815eko ekainaren 15ean izan zen, munduaren bestaldean Tanborak eztanda egin eta bizpahiru hilabetera. European euriteak eragin zituen erupzioak eta, nahiz eta Napoleonen porrota azaltzeko faktore asko kontuan hartu behar diren, eguraldi kaxkarrak ez zion mesederik egin enperadoreari.

oparagoen bila. “American Heartland” delakoa, itsasoak bustitzen ez duen AEBen eremua, taxutzen joan zen urte horietan. Egun, AEBetako kostaldean eta barnealdearen arteko aldea nabarmena da oraindik.

Bizikletak eta ongarri mineralak

Goseak asmamena zorrotzen omen du. Justus Von Liebig (1803-1873) kimikari alemaniarak Tanborak eragindako gosetea jasan zuen txikitan, Darmstadt jaioterrian. Nekazaritzaren errendimendua obsesio izan zuen orduz geroztik, eta landareen nutrizioan ikerlan ugari egin zuen. Laboreak hazteko nitrogenoa funtsezkoa zela deskubritu zuen eta, aurkikuntzan oinarrituta, ongarri mineralak garatu eta ekoizpen prozesuan barneratu zituen. Ongarri industriaren aitzindaria izan zen.

Beste alemaniar batek, Karl Drais asmatzaileak *Laufmaschine* edo belozipedia asmatu zuen 1817an. H. E. Lessing historialariaren arabera, bizikleten eta motoen arbasoa ere Tanboraren krisiari lotuta dago. Giza-kientzat nahikoa janaririk ez zegoen eta are

gutxiago zaldientzat. Baina zaldi bidezko garraioa funtsezkoa zen garai hartan, eta Draisek garraiobide alternatiboa asmatu nahi izan zuen.

Waterloo eta Berrezarkuntza

1996an, Warwick (Ingalaterra) burututako geozientzia aplikatuei buruzko jardunaldi batzuetan, Kenneth Spink geologoak esan zuen Waterlooko guduan Napoleonek jсандako porrota erupzioaren ondorioa izan zela.

Gudua 1815ko ekainaren 18an izan zen, eta ordurako sumendiaren eragina nabarmena zen eguraldian. Belgikako gudu-zelaian egon zirenen arabera, zerua hodei beltzez estalita zegoen, zaparradak etengabe botatzen zituen eta zoru lokaztuak artilleria aurrera eramatea eragozten zuen. Jacques Logie

historialaria ez dator bat Spinken teoriarekin. Ez du ukatzen Waterlooko ekaitza Tanborak eragin zuenik, baina eguraldia bi bandoen kaltetan okertu zela dio, eta Napoleonen osteengan eragin handiagoa izan balu ere, beste faktore asko erabakigarriagoak izan zirela. Baina aintzat hartu behar da, Napoleo-

Europak XIX. mendeko gosete handiena jasan zuen. Premiako gaien prezioak %250 egin zuen gora Ingalaterran eta %350 Frantzian

JARDUNALDIAK

Eztabaída · Dialogue · Dialogo

Gaia / Tema / Sujet:

“BIDASOAN ELKARBIZITZA”



Otsailak 19 osteguna.

FICOBAn 19:00etan.

Jose Antonio Santano, Irungo alkatea, Kotte Ecenarro Hendaiaiko alkatea, Aitor Kerejeta, Hondarribiko alkatea

MODERATZAILEA: Martxelo Otamendi eta Aitziber Zapirain



Laguntzailea

ELKAR EGIN



Sumendia inspirazio iturri

JOSEPH MALLORD WILLIAM TURNER (1775-1851) artista ingelesari “argiaren margolaria” edo “atmosfera maisua” esan izan diote, eta izengoiti horiek, hein batean, Tanboraren erupzioari esker ere irabazi zituen. Nagusiki paisaiak margotu zituen eta inpresionismoaren aurrekaritzat jotzen da, zertzelada askeengatik eta koloreen erabilera bereziagatik. Oliotan edo akuarelatan naturaren fenomenoak jasotzen zituen eta 1816an aukera ederra izan zuen horretarako. atmosferako errauts maila altuak eguzki sarrera ikusgarriak eragin zituen eta, horrenbestez, Turnerren zeru ezinezkoak ez zeuden haren irudimenean; ikusten zuena margotu zuen.

Udarik gabeko urte hartan, Londrestik 1.000 km eskasera, Dresden (Alemania) Elba ibaia izozturik egon zen luzaroan. Han, beste margolari erromantiko batek, Caspar David Friedrich (1774-1840) hunkituta begiratzen zien ibaian behera topatzen zuten guztia herrestan eramaten zuten izotz puskei eta naturaletik zirriborroak egiteari ez zion utzi, beregan ezohikoa zena. Zirriborro horietan oinarritu zen erromantizismoaren lehen aroko koadrorik enblematikoenetakoa margotzeko: *Izotzezko itsasoa* (*Itxaropenaren hondoratzea* ere deitua).



Eszerrean, William Turnerren koadroa, hain berezkoa zuen zeru koloretsua irudikatzen duena. Eskuinean, Mary Shelley, *Frankenstein* klasikoaren egilea. Tanborak eztanda egin izan ez balu, ez guke izango Turnerren zeru bereziez eta Frankenstein doktorearen gorabeheraz gozatzeko aukerarik.

Idazleek ere nozitu zuten erupzioaren eragina. 1816ko uztailan Lord Byron, John Polidori, Percy B. Shelley, haren emazte Mary Shelley eta beste idazle batzuek “uda”ko oporraldia Suitzan, Leman lakuaren ertzean pasatzea erabaki zuten. Baina tenperatura baxuek eta euri-jasek etxe barruko babesean luzaroan egotera behartu zituzten. Shelley senar-emazteek maiz bisitatu zuten Villa Diodati, Lord Byronen alokatutako etxea, Polidoriarekin partekatzen zuena. Bisitaldietako batek hiru egun eta hiru gau iraun zuen. Idazleak beldurrezko istorioak asmatu, idatzi eta elkarri kontatzen aritu ziren egun horietan eta genero gotikoaren mugari bihurtu zen eguraldi txarrak eta giro ilunak bultzatutako esperimentu hura. Handik atera ziren Lord Byronen *Iluntzuna* eta John Polidoriaren *Banpiroa*, lehen banpiro istorio modernoak. Baina ariketa literario horren emaitzarik nabarmenena Mary Shelleyren *Frankenstein* izan zen. Etxera itzultzean, udaldi hotz eta ilun hartan asmatutako istorioa lantzen jarraitzea erabaki zuen eta 1818an argitaratu zuen zientzia fikziozko lehen nobelatza jotzen dena.

Tanboraren erupzioak mundua hoztu baina artista erromantikoen sormena berotu zuen.



RICHARD ROTHWELL

ni hainbeste garaipen eman zizkion estrategian, tropak azkar mugitzea funtsezkoa zela, eta baldintza horietan ezin izan zituela ohiko taktikak gauzatu.

Kontuak kontu, Napoleonen porrotaren ondoren Berrezarkuntza iritsi zen, European Antzinako Erregimena berrezarri zuten. Baina ez luzaroan, 1820an iraultza liberalen uholdeak Europa hartu baitzuen. Liberalismoaren eta nazionalismoaren doktrinek bultzatu zituzten iraultzen buruzagi intelektuallak, baina iraultzen oinarrian, 1789an Parisen

gertatu bezala, goseak eta prezioen igoerak jotako herritarrek zeuden.

Aipatutako zorigaitz eta aldaketa guztiak ezin zaizkio Tanborari soilik egotzi. Beste faktore batzuk ere kontuan hartu behar dira urte horietan gertatutakoa osotasunean ulertzeko. Baina erupzioaren eragina ukazina da, eta hondamendiaren 200. urtemuga aitzakia egokia izan daiteke, hainbat alorretatik, gaia hobeto aztertzeko, 200 urte geroago, klima aldaketa sakonago eta iraunkorragoak ekar dezakeena aurreikusteko baliagarria izan baitaiteke. ■



Diputació de Lleida
Patronat de Turisme

Elurraren lurraldetik haratago...

NATURA ETA PAISAIA

Baqueira Beret
Boí Taüll Resort
Port del Comte
Espot Esquí
Port Ainé
Tavascan
Tuixent-La Vansa
Virós-Vall Ferrera
Aranse
Lles de Cerdanya
Sant Joan de l'Erm

APP BERRIA
aralleida365
—
aralleida.com

Parte hartu lehiaketan
#nieve1415
aralleida.com/concurso nieve



«Gertatzen dena kontatzeko gaude, ez protagonistak izateko»

“Goizak argitara ematen du gauaren egia. Egunak patu ilunena du hurrengo gaua”.

| SUSTRAI COLINA |

Argazkiak: Dani Blanco

Zergatik Ekialde Hurbila?

Betitik erakarri naute Israel eta palestinarren arteko gatazkak, islamak, islamismoak, Ekialde Hurbileko mugimendu politiko eta erlijiosoen... Askotariko gutxiengoen izugarri aberasten dute eskualdea. Karrera bukatzean, Palestinako albiste agentzia batekin hasi nintzen lanean, eta bertan bizi ostean, gatazka hori ezin zela modu isolatuan aztertu, ikuspegi osoagoa behar nuela, jabetu nintzen. Horregatik ekin nion *freelance* gisa beste herrialde batzuetara mugitzeari. Itxaroten geratzen denak ez dauka zereginik. Inork ez dizu hilabeteko soldata eta itzultzaile zein kameralari batekin korrespontsalaririk eskainiko. Are gehiago, berri-emaile figura desagertzen ari da.

Ekialde Hurbila ala Ekialde Hurbileko gatazkak dira albiste?

Gatazkek bakea edo barealdia baino gehiago saltzen dute. Ez dio alferrik Xavier Aldekoa kazetariak gerra-kazetariaren figura zabaldua dagoela, baina ez dagoela bake-kazetaririk. Albisteetan ere merkatu bat dago, denok dakigu zerk saltzen duen eta zerk ez. Badakit medio batzuei toki batzuetatik idazteko proposamena luzatuz gero ez didatela erantzungo, baina azken ordukoa edo gerra bat kubritzera noala jakin bezain pronto gainean izango ditudala. Horregatik da zaila *Breaking News*-ari uko egitea. Jaten ematen dizun eskuari ezin diozu hozka egin. Oreka bilatzea da gakoa. *Breaking News*ean lan asko egin badut, beti hartzen dut beste leku batzuetara erreportajeak idaztera joateko tartea, dirua galduko dudala jakin arren. Guk askotan molotofak, harriak, bonbak, misilak... erakusten ditugu, baina ekaitza

baretzean zein da herrialde horien egunero-koa? Niretzat askoz interesgarriagoa eta aberasgarriagoa izan arren, ez dago hori kontatzeko interesik. Horrek errealitatetik aldentzen gaitu, baina krisiak beharrezkoaren eta garrantzitsuen arteko bereizketa ekarri duenez...

Kazetariak sistemaren txotxongilo bihurtu dira?

Toki berera bat-batean 200 kazetari batera iristen garenean, zaila da besterik pentsatzea. Normala da gaur bonbardatu dutena biharamun goizez kontatu nahi izatea, baina batzuetan, eraman egiten gaituztela dirudi. Elkarrekiko eragin handiegia daukagu. Denok gabilta BBC, Al Jazeera eta kazetari jakin batzuk nora mugituko. Hedabide handien agenda politikoen markatzen dute erritmoa. Nork erabaki zuen aurreko uztailako albisteak Gaza izango zela eta ez Siria? Zibil gehiago hil ziren Sirian Gazan baino. Egia da kazetariak errazago sartzen garela Gazan Sirian baino, baina hor interes bat dago.

Interesak interes, zein da zu bezalako kazetari baten funtzioa?

NORTASUN AGIRIA

Ane Irazabal. Arrasaten sortua, 1984an. Historia ikasi zuen Euskal Herriko Unibertsitatean eta ikus-entzunezko komunikazioa Mondragon Unibertsitatean. Karrera bukatuta, Palestinako albiste agentzia batera joan zen lanera, eta geroztik *freelance* kazetari dihardu, batez ere Ekialde Hurbilean. Besteak beste, ARGIA, *Berria*, EITB edo Telesur-entzat egiten du lan.



ANE IRAZABAL

Lehen gehiago sinesten nuen funtzio pedagogikoan. Orain ez dakit pedagogia egitea dagokigun. Gu gertatzen direnak, ikusi ditugunak, salatzeke gaude. Bertan egon ezin dutenen begiak dira gureak. Nahi nuke amak edo Arrasateko koadrilak nire kroniken bidez gertatzen ari dena ulertzea, ni sumindu naizen bezala sumintzea. Kontzientziak pizteke gaude. Horregatik diot beldurra jendeak kontatzen ari naizena ez ulertzeari. Azken ordukoa kontatu beharraren beharraz, askotan ez daukagu espaziorik hariari jarraipena egin eta guztia testuinguruan kokatzeko. Hori hala, bideo batean, nahiago dut pertsona baten esperientziaren bidez errealitatea islatzen saiatu. Horrekin geratzen da jendea, ez azken orduko hildako kopuruarekin.

Zuria eta beltzaren artean nola, enpatia eta enpatia ezaren artean gailbitza?

Kazetariak ezinbestekoa du enpatia. Gazan, etxera iritsi eta negar asko egindakoa naiz. Dena den, nazioarteko kazetariok, eta Mendealdeak oro har, injustiziarekin enpatizatzen dugunean ere guri ezin zaigula gertatu sinetsita bizi gara. “Ai gaixoak, onartezina da, baina guri ez zaigu gertatuko!”. Sarraskiak eta bortxa urruneko kontuak iruditzen zaizkigu, betiko salbu dagoen lur batekoak garela. Baina iaz

Lampedusan topatu genituen errefuxiatu Siriarrek ere gauza bera aitortzen ziguten: “Palestina gertatzen zirenak guri ezin zitzaizkigula gertatu uste genuen, Damaskon salbu ginela, ondo bizi ginela”. Lau seme-alabarekin, ezer gabe, patera batean iritsi berriak ziren. Horregatik diot benetako enpatia parekoaren larruan sartuz lortzen dela, eta horretarako zuri ere gerta dakizukeela sinetsi behar duzula. Hori lortzean jartzen zaizu oilo-ipurdia.

Gatazken zuria eta beltza agertzen dira beti. Non dago grisa?

Askotan ez gara istorio bila joaten, hau edo hura esango digutenen bila baizik. Aurrez daramazun istorioa kontatzea da errazena. Nik sinesten dudakazetaritza, ordea, buru-begiak zabaldu eta jendeak kontatu nahi dizunaren berri ematea da. Gure aurreiritzien mailako sinplifikazioetara jausten garenean arriskutsu bihurtzen gara. Jendeak ulertzeko moduko istorio sinpleak nahi baditugu, zer da samurrena? Bi bando erakustea. Baina bertako errealitateak askoz konplexuagoak dira, Palestinan denak ez dira Hamas edo Fatah-koak. Era berean, zer gertatzen da Mahmoud Abbasekin? Nazioartean lider berezi baten dirdira du, baina Palestinan inork ez du bere diskurtsoa sinesten. Gauza

Kalean da otsaileko

aizu!



- Lekukoaren inguruko lekukotasunak
- Amaiurko gazteluan historia azaleratzen
- Karena, euskarazko crowdfunding plataforma
- Korrika, gero eta gertuago
- David Doblas arin-arin

Urte osoko harpidetza (Hego Euskal Herria eta Espainia) **29 €**
aizunet.org



bera Hamas eta Fataharen arteko adiskidetasun itunekin. Guk, Mendebaldetik, “poza Gazako kaleetan” izendatzen dugu, baina jendearekin hizketan hasi eta inork ez du sinesten. Errealitatea oso urrun dago agentzietatik iristen diren berri eta irudietatik.

Zergatik tematzen gara Ekialdea Mendebaldeko betaurrekoetatik begiratzen?

Ekialde Hurbila ulertzeko beraiekin bizi behar zara, euren egunerokoa ezagutu, haien kode sozial eta kulturalen jabe izan, eta batez ere, aurreiritziak albo batera utzi eta hutsetik ikasteko prest egon. Oso zaila da, ordea, gure filtroak alde batera uztea. Niri izugarri lagundu dit bertako kazetariekin lan egiteak. Gertatzen ari dena bizi dute, egoeraren eta jendartearen eza-gutza zorrotza daukate, uneoro dakite nola jokatu eta nola ibili... Esaterako, kazetari batentzat ezinbestekoa da jendearengana nola zuzendu jakitea. Bertara heldu eta gutxira, gizon oso islamista bat elkarriketatzea egokitu zitzaidan, eta eskua luzatu nionean, atzera egin eta ukatu egin zidan. Zorionez, ez zuen gaizki hartu, baina nire akatsa izan zen: holako pertsona bati ezin diodala bostekorik eman jakin behar nuen. Zentzu horretan, gehiago kostatzen zait gizonezkoengana hurbiltzea. Emakumeekin errazagoa da dena. Ekialde Hurbileko emakumeak oso indartsuak iruditzen zaizkit, duintasunaren paradigma dira. Haiek dira benetan familia gidatzen dutenak. Jendartean daukaten rola guk uste duguna baino askoz aktiboagoa da. Hemen feministatzat ditugun emakume asko baino feministagoak iruditzen zaizkit. Etxetik ateratzea, metroa hartzea, eros-

ketak egitea, lanera joatea... duintasun handiz daramaten eguneroko borroka bat da.

Eguneroko borroketan, zer dira kazetariak, traba ala erabili beharreko arma?

Batzuentzat traba eta beste batzuentzat probestu beharreko arma. Palestinan, eta Ekialde Hurbileko herrialde gehienetan oro har, jendeak bere etxeko ateak irekitzen dizkizu, aho-bizarrik gabe kontaktzen dizute euren errealitatea. Palestinarrek badakiek nazioarteko kazetariak baliatu behar dituztela, oso errotuta dauden Israelen agenda eta diskurtsoari aurre egiteko. Askotan etsita topatzen ditugu, kontatzeak ezertarako ez duela balio sinetsita, baina ezin gara kea saltzen hasi. Guk ezin dugu ezer aldatu, ez gatoz inori laguntzera, errealitatea kontatzera baizik. Bestalde, leku batzuetan, kazetari lana oso kontrolatuta dago. Azken aldiz Gazan izan nintzenean, bai Israelek eta bai Hamasek kontrolatzen gintuzten. Hala ere, Ekialde Hurbilean, traba burokratikoak traba politikoak baino handiagoak dira. Esaterako, Egipton, estatu kolpearen ostean, kazetariontzat asko gaiztotu da egoera. Ezin duzu ia kamerarik kalera atera, koaderno batean apunteak hartzen ikusiz gero geratu egiten zaituzte, prentsa-txartela lortzeko burokrasiak sei hilabete iraun dezake, eta prentsa-txartelik gabe harrapatuz gero arazoak izan ditzakezu. Herrialdearen eta momentuaren arabera asko aldatzen dira kontuak, eta aldiro joko-arauak zeintzuk diren jakitea komeni da.

Egiptoz ari gareno, zer geratu da udaberri arabiar hartatik?

Denbora

Parisko atentatuak, Greziako hauteskundeak, Kuba eta AEBen arteko harremanen berrartzea... Gertatzen den unean, albiste oro da hil ala biziko. Denborarekin, alta, giltzurruneko harriak nola, desagertu arte txikitzen da notizia. Teloia gibeletako esku beltzak ez bada, ez du ezerk irauten. Elkarrizketa egin dugun egunetik argitaratu denera auskalo zer ez den gertatu. Nola egiten zaio denborari kontra kazetaritza ordulariaren aurka ari denean?



Ezer ez. Are gehiago, ez genioke udaberri arabiarrak deitu behar. Negu gorrian sartuta gaude, erregimen militarren itzulera eta gerra zibilen leherketak dira nagusi. Agian, Tunisia da salbatzen den irlatxoa, baina han ere bueltan dira Ben Aliren azeri zaharrak. Oso naifak izan gara. Akats handia izan zen herritarren esku soilik zegoen iraultza bat zela pentsatzea. Ez zegoela bestelako interesik sinetsi genuen, herritarren botereak sistema guztia eraistea lortuko zuela. Begira orain... Antzeko zerbait gertatzen da sare sozialek iraultzan jokatu zuten paperarekin. Egia da tresna garrantzitsua izan zirela, baina bertan zebiltzan ekintzaileak kanpoan ibilitakoak ziren, ingelesa zekitenak, mendealdartuak. Ez zuten jendartearen ehuneko ehuneko ordezkatzen. Egipton denek ez daukate internetik.

Konponduko da inoiz Israel eta Palestinaren arteko gatazka?

Oso eszeptikoa naiz. Eugenio García Gascón kazetariak dio Israel zeharo isolatuta bi minututan konpondu litekeen gatazka dela. Baina ba al dago horretarako borondaterik? Gaur egun, israeldarrak mahaian esertzen direnean badakite ez dutela ezer galtzeko, ez dela auziaren mamia aipatuko, eta ondorioz, ez zaie ezer axola. Konbentzita nago egoerak urtetik urtera okerrera egiten duela. Horrek zer bukaera izan dezakeen? Entzuten denaren arabera, Gaza Egiptoren esku geratu liteke, Zisjordanian konkistak ez luke etenik izango, Zisjordanian palestinarrek A eremuetan utziko lituzkete, eta gainerako guztia Israelen esku geratuko litzateke. Horrela, presio demografikoak palestinarrek Jordania eta beste herrialde batzuetara mugitzera behartuko lituzke. Hori da Israelen azken helburua eta denbora ere alde du, ez dauka inolako presarik.

Gerrak daudeno, iraungo dute gerra kazetarien mitoak?

Lanean nabilenetik gerra kazetarien lana desmitifikatu dut. Egia da gerra batera bazoaz

kontuz ibili behar duzula, baina ez zait bidezkoa iruditzen kazetari batzuei ematen zaien heroi tratamendua. Hemen inor ez da suizida, denok hartzen ditugu gure neurriak. Guk ere gure figura desmitifikatu behar dugu eta gure lana egitera goazela esan. Gertatzen dena kontatzeko gaude, ez protagonistak izateko. Kontaktatu sare ona baduzu, uste baino errazagoa da dena. Horregatik da garrantzitsua gerren zurrumbilotik atera eta lekuetara itzultzea. Ez duzu zertan beti sua dagoen unean sua dagoen lekura joan. Inbertsio bat izan daiteke aktualitatearen fokupetik at dagoena bisitatzea. Kontaktatu sareak landu behar dira, jendearekin egon, zure begiz egoerari pulstua hartu... Ez dakizu sekula noiz eta nola itzuliko zaren, eta errealitatearen irudi gaurkotua eduki ezean zure analisi guztiak okerrak izan daitezke. Hori, esaterako, mitotik urrun dago, baina gure lanbidean oinarri-oinarrizkoa da.

Mitoa da nazioarteko *freelance* kazetari batenzat agenda antolatu ahal izatea?

Nik ez daukat agendarik. Asko jota, hemendik hamabost egunerako planak egin ditzaket. Astero erreportaje pare bat ateratzen saiatzen naiz, eta azken orduko albiste potoloago bat jarraitza banoa minimo batzuk antolatuta abiatzea gustatzen zait. Horrek askatasun itzela ematen dit, nik egindako lanaz bizi ahal izatea pribilegiotzat dudalako, nora joan erabaki dezakedalako, baina bestalde, loturak hor daude. Ederra da astebeterako benetan gustatzen zaizun leku batera joan ahal izatea, edo bi aste hartzea arabierazko ikastaro intentsibo bat egiteko, baina hain da boladakako lan eze-gonkorra gurea, zaila dela uneoro oreka emozionalari eustea. Hala ere, gustatuko litzaidake urte batzuetan horrela jarraitzea, badakidalako geroan ez naizela oraingo bizimodura itzuliko. Badakit pertsona moduan, emakume moduan eta kazetari moduan nire lehentasunak aldatzen joango direla. Badakit ez dudala bizitza osoan horrela ibili nahi, baina momentuz pozik nago. ■



Egunero lan berriak sareratzen ditugu
1.300 bideo baino gehiago ikusgai




Erreportajeak

Bost minutuko bideoak. Gai mamitsuak era argian azalduta.



Elkarriketak

Zer esana eta pentsatua ematen duten pertsonekin solasean.




Argazki galeriak

Kanpoko zein bertako argazki bilduma ikusgarriak begiaren gozamenerako.




Ekitaldiak

Ekitaldi interesgarriak klik batean, baita nazioartean emandakoak ere.



Film laburrak

Erabiltzaileek sarean zintzilikatutako euskarazko film laburren hautaketa.




Dokumentalak

Dokumental berri bat astero. Euskaraz edo euskarazko azpitituluekin.



Solasaldiak

Gai zehatzei buruzko eztabaidak, hitzaldiak eta mahai-inguruak, gogoetarako material gisa.



Bideo herrikoiak

Euskal Herrian jendearen ekimenez egindako bideoen biltokia.

NANCY FRASER
POLITOLOGOA

«Emakume pribilegiatu gutxi batzuk toki batetik bestera mugitu dira, hori da egin den guztia»

Nancy Fraser politologo eta feminista estatubatuarra da. Bere ustez, emakume multzo batek baino ez du lortu boterea hartzea. Haiek gizonekin lehiatzen dira, eta gizonen jarrerak imitatzen dituzte. Egiturak bere horretan segitzen du: produkzio ekonomikoa eta erreprodukzio soziala ez dira uztartu.

| ONINTZA IRURETA AZKUNE |

NANCY FRASERRI Mariana Vilnitzky-k egin dio elkarrizketa *Alternativas económicas* aldizkarian (2014, iraila) eta ondokoa zati baten itzulpena da. Jatorrizkoa paperean baino ezin da eskuratu.

P. Thompson historialariak Iraultza industrial baino lehen ere lan bikoitzaz (etxean eta kanpoan) kexatzen ziren emakumeak aipatu zituen.

Historian zehar hala izan da. Salbuespen tarte batean langile gizonen borrokatu eta zenbait kasutan lortu zuten “familia soldata” izeneko. Familia guztia mantentzeko balio zuen. Emakumeek ez zeukaten kanpora lanera ater beharrik dirua irabazteko. Langile klaseak hori nahi zuen eta horren alde egin zuen borroka. Baina salbuespena izan da.

Dena dela, ez dirudi emakumeen aldeko jarrera denik...

Noski ezetz. Menperatze maskulino eta menpekotasun femenino modu bat zen. Babes handia eman zioten Ingalaterrako, Amerikako Estatu Batuetako, Frantziako eta beste hainbat herrialdeetako langileek. Baina salbuespena izan zen zeharo. Emakumeek beti izan dute lan bikoitza. Lan eta lan egiten dute familiako aurrekontuari ekarpena egiteko.

“Nazioarteko Diru Funtsak munduaren zati bat kanpoan uzten badu doitze estruktural eta politikoak eginda, eta hori egiten duena emakumea bada, hori ez da aurrerapena”

Munduan ba al da tokirik emakumea menpekotasun horretatik askatzea lortu denik?

Ez dut uste halakorik lortu denik. Agian, parekidetasun gabezia motak aldatu egiten dira herrialde eta erregio batetik bestera. Asiako hegoaldean, herrialde batzuetan, emakumeak kalera ateratzea ere debekatuta dauka oraindik, patriarkatua ulertzeko modu oso zaharra da, nahiz eta gauzak aldatzen ari diren. Menpean hartzeko modu oso modernoak ere badira, egituren bidez, aitaren edo senarraren debekuen bitartez baino. Amerikako Estatu Batuetan daukagu menpean hartzeko modu modernoak, lan bikoitza, gero eta sarriago hiru edo lau lan dira, egoera ekonomikoak hala eraginda. Egoera prekarioan dauden emakume askok enplegu bat baino gehiago dituzte. Askok hamar ordu egiten dituzte McDonalds-en, beste hamar Walmart-en, beste hainbat denda batean. Egun erdiko eta denboraldi baterako lanak dira.

Tunelaren bukaeran argirik ba al dago?

Itxaropena borroka sozialen gaitasunean dago. Ez da automatikoki gertatuko. Emakumeon esku dago aldaketa. Feminismoak garaia dauzka, garai biziak eta geldiagoak. Gaur egun, feminismo erradikala geldirik dago, eta bere tokian feminismo liberala dau-



MAXRESDEFAULT

“Menpean hartzeko modu oso modernoak ere badira, egituren bidez, aitaren edo senarraren debekuen bitartez baino”.

kagu. Nire ustez, feminismo horrek arazoak sortzen ditu, desegokia da.

Zergatik?

Emakume profesional oso pribilegiatuak, heziketa maila altukoak, kualifikazio handiak, mundu korporatiboan eta militarrean postu gorenetan daudenak enpoderatzen ari dira, beste hitz batzuetan esanda “kristalezko sabaia puskatzen ari dira”. Gailurrera heldu, gizonekin lehiatu, gizonen erara.

Botere mota “maskulinizatua”...

Guk esaten dugu “sozialki maskulinoak” bihurtzen direla. Mota horretako feminismoak du indarra Amerikako Estatu Batuetan, Ingalaterran, munduko leku askotan. Nazioarteko Diru Funtsaren gidaritza duen Christine Lagarde bezalakoak dira. Baina NDFk munduaren zati bat kanpoan uzten badu doitze estruktural eta politikoak eginda, eta hori egiten duena emakumea bada, hori ez da aurrerapena.

Erreproduzioan arreta jarriko duten politiken-tzat toki handirik dagoenik ez dirudi, erabat produkzioari begira antolatutako munduan.

Zoritxarrez, boterean dauden emakumeek gizonek bezala funtzionatzen dute. 16 orduz egin behar dute lan gobernuan, enpresan, abokatutzan edo medikuntzan. Eta ez dute denborarik hartuko lixiba egiteko, ontziak garbitzeko, otorduak prestatzeko, bainerak garbitzeko, fardelak aldatzeko... Beste norbaitek egingo du lan hori guztia.

Beste emakume batek?

Gehienetan emakume etorkinak, beltzarranak, herrialde pobreakoak, nekazaritza gunekoak.

Ohikoa da emakume horrek soldata oso murrizta izatea, bere haurrak utzi izana edo bera baino are pobreagoa den norbaiti utzi izana zaintzeko. Hasieran aipatu ditudan emakume horiek emakume hauen bizkar dute arrakasta. Produkzioaren betiko historia da, erreprodukzioaren gainean eraikitzen dela. Emakume pribilegiatu gutxi batzuk toki batetik bestera mugitu dira, hori da egin den guztia. Baina egitura ez da aldatu.

Nola alda daiteke egitura, gure inguruko guztia beste era batera badago antolatuta? Nola esan daiteke: “Lauretan banao zeren bostetan umea eskolan jaso behar dut” eta atzean ez geratu, gauza bera beste inork egiten ez badu (eta noski, bere aitak ez du egiten)?

Eman duzun adibidea, orain daukagun egituren bizi den eta borroka hor egin behar duen pertsona baten ikuspegia da. Zer gertatuko litzateke “lan egitura hau ez da bidezkoa eta aldatu egin behar dugu” esango lukeen mugimendu politikoa balego? Norbanakoaren borroka baino elkarte eta mugimenduen egitura berdiscinatzeaz ariko ginateke.

Adibiderik ezagutzen al duzu?

Bateren bat. Ez da perfektua, baina egin ziren saiakera batzuk. Herrialde komunistak zerbait desberdina egiten saiatu ziren. Ez zen derrigor ona izan, baina aurrerapen batzuk egin ziren, herrialde kapitalistekin alderatuta. Latinoamerikan ekonomia sozial eta solidarioko mugimendu kooperatiboak daude. Lanak banatzeko eredu kooperatiboak antolatzen ari dira, erreprodukzio soziala produkzio ekonomikoan integratzen dute. Jendea ari da saiatzen. ■



**June
Fernández**

♦
KAZETARIA

Feminismo hedonikoa

ZIBERFEMINISMOAN gorputzari eta plazerari lotutako gaiak protagonismo gehiegizkoa ote daukaten kritika helarazi didate hainbat emakumek. *Pikarako* aurkezpen batean, batek esan zidan sexu askapenaren borroka ondo dagoela, baina berarentzat lehentasuna prekarietatearen kontrako borroka dela. Halako gaiak ez jorratzea baino, arazoa da gure sare sozialetan depilazioak, hilerokoak edo orgasmoei buruzko artikuluek etxeko langileen eskubide urraketa buruzko edo etxebizitza eskubidearen inguruko erreportaje sendoek baino oihartzun handiagoa daukatela.

Giza eskubideen urraketa bortitzen berri jaso baino, sare eta komunikabide feministetan eduki arinak eta erakargarriak bilatzen dituztenak txolinak direlako epaia egin genezake. Baina, ezin dugu ahaztu internet “errealitate” deskonektatzeko ihesbidea dela, eta etenaldi eta aisialdi tartetean irakurtzen errazak diren edukiak –are gehiago gure esperientziarekin lotuta badaude– klikatzen ditugula gehien.

Irantzu Varela edo Alicia Murilloren bideoekin barre egitea eta sare sozialak konpartitzea bada jardun feminista, baina hori bada gure ekarpen bakarra edo nagusia, gure buruari galdetu beharko diogu zein den horren eraginkortasuna

Ziberfeminismoa korrante bat baino, baliabide bezala ulertzen dut, gizartea despatrialkalizatzeko eguneroko beste esparruetan (kalean, familian, gaztetxean, lan edo ikasketa zentroan) egiten dugunaren osagarri. “Sofatik egindako aktibismoa” kontzeptua erabili ohi da *Change* edo *Avaaz*-eko eskaerak sinatzeagatik eta Facebook-en giza eskubideen aldeko edukiak konpartitzeagatik izugarritzko konpromiso soziala daukagula sentitzearen joera kritikatzeko. Feminismoaren kasuan, nik uste, sare sozialetan ikusgai garen gehienok kalean ere lan oparoa egiten dugu. Baina aldi berean kezkatzen

nau internet gure militantzia gune nagusia bilakatzearen arriskueta bategi: denbora-pasa kutsu horren ondorioa, Andrea Momoitoren hitzetan: *Feminismo hedonikoa*.

Irantzu Varela edo Alicia Murilloren bideoekin barre egitea eta sare sozialak konpartitzea bada jardun feminista, baina hori bada gure ekarpen bakarra edo nagusia, gure buruari galdetu beharko diogu zein den horren eraginkortasuna. “Nire alua maite dut” edo “Zu gabe ni naiz” bezalako kartelak sareetan konpartitzeak zer eragin dauka gure burbuitatik kanpo bizi diren emakumeentzat? Gu geu, klase ertaineko neska hiritar zuriak, oso harro, moderno eta aske sentituko gara, baina horrek zer eragin dauka etxeko langile etorkin baten, sexu jazarpena bizi duen preso baten edo Dependentsia Legearen murrizketaren ondorioz diru-laguntzarik gabe geratu den zaintzaile baten bizitzan, bere sexualitatean, bere amodio ereduetan?

“Pertsonala dena politikoa ere bada”, Kate Millet-en leloa da, feministon mantra nagusienetako bat. Baina azken bolada honetan ideia hori galbideratu ote den (edo dugun) ezinezona daukat. Milleten asmoa emakumeen kontrako diskriminazioak eta erasoak politizatzea zen. Hau da, indarkeria matxista ez dela isilpean pairatu beharreko arazo pribatua, egitura sozial jakin baten ondorioa baizik. Baina ez ditzagun nahastu “pertsonala”, “indibiduala” eta “egozentrikoa”; nire desioak eta kezkak ardatz badira, nik bizi ez dutan sexismoari lotutako arazoak alboratzeko joera izango dut. Ikuspegi zabala mantendu dezagun, jorratzen ditugun gaiak emakume anitzen lehentasunen erakusgarri diren aztertu eta emakumeon jabekuntza kolektiboak elkartasunean oinarritua izan behar duela gogoratu. Bestela betikoa gertatzen da, 2.0. bertsio postmodernoan (feminismo hipster kontzeptua ere entzun dut): emakume zuria, hiritarra eta klase ertainekoa gaude erdigunean, eta gure errealitate pribilegiatutik abiatuta feminismoaren norabidea ezartzen dugu. ■



Iñaki Murua

BERTSOLARIA ♦



DANI BLANCO

Diru kengarria ala heziketa?

BERRIZ ERE kanta bera al dugu? Werten ministro-keria Europara begiratzeko aitzakian? Europak dena ona du eta AEBek ona dute dena! Zeinentzat? Zertarako? Hau bezalako ministro eta gobernu *kopetente*-entzat: batetik hiru urteko iraupena duten graduak ezarriko dituzte eta bestetik bi urtera luzatuko dituzte masterak. A zer mauka! Batetik, Estatuak urte bat gutxiago ordaindu beharko ditu unibertsitateko ikasketak (milioi mordo aurreztu –ez xahutu/inbertitu–, patrikaratu!?, heziketan lanpostu berriak sortzea saihestu...); bestetik, ikasketek balioa izan dezaten, dirutza bota beharko dute herritarrek (unibertsitateek jasoko dutena...), eta gainera, unibertsitateen artean mailak sortuko dituzte, beti ere, konpetentzien arabera laguntzak, sosak, pribilegioak... etxekoenen artean “demokratikoki eta irizpide publikoetan” oinarriturik banatzeko. Eta ahalegin ukaezin hau dena zertarako eta, graduatuak lan bila atzerrira joateko aukera izan dezaten, Espainian ez dutelako puska batean behintzat taxuzko lan eta soldatarik izango. Kopeta galanta hauek: konpetente ez baino *kopetente!*

Klaro bada, nola hasiko zen pentsatzen ikasleak motibatzen programak, eskola moduak, pedagogiak eta gaiak aurkitzea zein berritzea? Zergatik dagoen hainbeste arreta eskasia, hiper eta piper-aktibitate, kontzentrazio falta, antsietate, stres...? Nolaz onar

dezakeen eskola komunitateak ikastearen gainetik aprobatazea helburu? Zelan lortu burokratak ez produzitzea? Ikasle batzuk –hontz begirada arretatsua eta garuna ki(e)to– eta beste batzuk loro –errepikapenaren errepikatzaile– ez bihurtzea? Pertsona esanekoak, domestikatuak eta txanpon-begikoak ez egitaratzeko jardun hezitzaileak?

Hasi beharko dugu buruz pentsatu eta datorren bezain natural adierazteari zentzu positiboa ematen eta sentimenduak kanporatzeko bihotzari libre hitz egin dezan entrenamendua ematen edo tripetatik ateratzen zaigunari ere bere lekua egiten, ala? Horiek, hirurak (burua, bihotza eta tripak) pentsatzeko eta adierazteko bitarteko ditugunez, hiru garun ditugula aitortu eta bakoitzari bere espazioa utziz, izatea kanporatzeko moduak

eta moduak baliatzen ez ezik aitortzen, ezta?

Gizarteak izaera aniztasunean du aberastasuna eta heziketak ezin du preso sartu eta estandarizatu bakoitzaren izateko modua. Ez liguke bat batean garena, ondo eta hotzean pentsatuta garenaz, ordezkarakatek onurarik ekarriko. Bizitza erraztu eta gauza sinpleetatik tiraka eraiki orde, bide sigi-sagatsuz zaildu eta bizitzeko interesa zapuztea lekarke.

Saiatzeara dagokigu, hiru garunak hiru garenak islatzen hezi eta pertsona konpetenteak gizarteratuz, *kopetenteen* erregetzak errepublika bihurtzeko. ■

Gizarteak izaera aniztasunean du aberastasuna eta heziketak ezin du preso sartu eta estandarizatu bakoitzaren izateko modua

DANI BLANCO



Edu Zelaieta



IDAZLEA

Hasiera pitoa

GREZIAN ongi errotuak omen diren bi *keraziaren* kontra borrokatuko dela iragarri du Syrizar: plutokrazia eta kleptokrazia. Dagoeneko zenbait neurri esanguratsu eta, zalantzarik gabe, ausart hartu ditu: pribatizazio prozesu batzuk gelditu, gutxieneko soldata igo (568 eurotik 751 eurora), kaleratutako milaka langile publiko berriz kontratatu, pentsiorik apalenei Eguberrietako saria itzuli eta osasun sistema publikoa erabiltzea doako bihurtu, besteak beste. Errotikako aldaketak aginduak zituen koalizio ezkertiarak aurretik emandako hainbat hitz

betetzeari ekin dio, beraz. Pentsatzekoa da traba gogorak eta etsai fierrak aurkituko dituela urratu berri duen bidean. *Long live the European Left.*

Ezkerretik, baina, hasiera traketsa izan duela salatu dute hainbatek, alderdi xenofobo-homofobo batekin egin baitu paktua eta estatuaren konfesionaltasun ortodoxoari eutsi baitio. Halaber, herria gobernatzeko hamaikakoan (presidentea eta hamar ministroak) ez dago emakume bakar bat ere. Plutokraziari eta kleptokraziari pitokraziatik egin nahi diote aurre, nonbait. Hasiera alua. Pitoa. ■



Ramon Etxezarreta

♦ PSE-EEKO KIDEA

Zigorra

EZINAREN MUGATIK ahalik eta urrutieneko bizimoduko egiturak sortu, sendotu eta iraunaraztea izango da erreformismoaren, ez dakit, helburua ala lanerako modua. Ez dadila ezina gugana hurbildu, ez gaitzala ezinak harrapatu, ez dadila gutaz jabetu, baina ezina, egon badagoela eta, arrisku gorria dela, betiere, jakinean egonik. Eta ezina etorri egin da, bertan dago, eta nahi genukeena nahi bezala egitea zaildu egin zaigu, guztiz ezinezko bilakatu ez esateagatik.

Ezina asmazio huts bat, bazterrak beldurtu, mantsotu eta otzantzeko asmakeria erdeinagarria besterik ez dela diotenak beti izan dira ugari. Espainian demokrazian sartu ginenetik gure artean espezimen hori ugaritzen joan dela segur nago eta, hemen, euskal herrietan ugariago dela esango nuke. Ezina mamutzat hartu dutenak, ukatu egin dutenak, hemen egituratuta bizi izan dira. Nola husten zituzten beren mihi zikin lerdetsuak “erreformista” iraina botatzen ziguten kaiku ahalenek!

Kontua da ezin horren aitor-tzan, ezina bere osotasunean etxean sartu zaigula kontatzera-koan, beldurra eragin eta zabal-tzerakoan, gero eta adostasun handiagoko elkarbizitza adostu dutela kontserbadurismo-rik gorrienak eta sozialdemokrazia-rik agerikoenak. Ondorioz politikagintzarekiko zegoen fede urria ia erabat galdu da. Historian erro demokratikorik izan ez dugun herriok, ez gara, oraindik, demokrazia ikasle pattal batzuk besterik. Diktadura desagertu zenetik gure arteko askok demokrazia eta politikagintza bazterrak nahastera zetozen

kontu zikin kontsideratu zituzten. Isilik eta tranpan egotea erosoago zitzairen herritar baten eskubide eta beharkizunetan zintzo zailtzea baino. Antipolitika instalatu zen gure artean. Abertzaletasunak ez du horretan ardura gutxi izan, jende asko baitago abertzaletasuna, edozein abertzaletasun, egoera natural eta berezko bat dela uste duena eta abertzaletasuna ez den oro politika dela, jendea gaiztotzeko tresna artifizi- al zahar bezain pozoitsua.

*Politikagintzarekiko
zegoen fede urria ia
erabat galdu da.
Historian erro
demokratikorik izan ez
dugun herritarrok,
ia guztiok, ez gara,
oraindik, demokrazia
ikasle pattal batzuk
besterik*

Podemos jaio, indartu eta gaineratu da Espainia osoan politikagintzaren ustelkeria eta balio-rik ezaren arazoizko ustetan oinarrituta, politikagintza “klasi-koa” ukatuz. Hemen, Euskal Herrian, ere, nire uste guztien kontra, badirudi presentzia sendoa duela. Gure arteko politika- ren ukatzaileak ezkutatu edo boteratu zirelakoan nengoen, baina nonbait herritar asko gal- dezka ari dira egin eta lortu dute- naz, alderdi klasiko bat gehiago bilakatu ote diren eta horregatixe arazoei iraun egiten ote duten. Zein eta zeinentzat ote hemengo zigorra? ■

IRITZIAREN LEIHOA

BERTSO BERRIAK



Imanol Lazkano

♦

Ama gaitzat hartuta, ama eta haurrak duten elkarren arteko lotura eta amaren gozoa aipatu- z, ARGIArako egin nituen bertsoen ondoren, zenbaitek, neure alaba tarteko, bota zida- ten:

- Eta aita, zer? Beti bezala libre.

Hara hemen horren eran- tzuna hiru bertsotan:


Emakumeen bularrak eta gizonezkoen paparra, bereizte hutsa omen da berez pekatu astun samarra. Barka mesedez pasatu badut berdintasunaren marra, amari nion miresmena da nire arrazoi bakarra.

Aita baldar bat izana naiz neu karga ezin dut arindu; nahiago nuen amak beraren antzeko egin banindu, baina txintxoan izanda ere eta gogoz ahalegindu, amarengan den goxotasuna ezingo nuen berdindu.

Ta orain kezka, nire jarduna nahiko matxista ote zan, batzuek behintzat ez dira egon erantzuteko perezan. Utzi natura bere gisara nahi duena esan dezan, ta entzun tentuz, naturak ez du sekula gezurrik esan. ■

Mikel Basabe Kortabarría ♦

IRAKASLEA, NAFARROAKO EREMU MISTOAN



DANI BLANCO

Txikia diozu? Bikoitza!

ASKORI ENTZUN DIOT Euskararen Legeari Nafarroan egin gura zaion aldaketa “txikia” dela esaten: zenbait alderdi politikori, sindikatu batzuei –nireari, besteak beste– baita euskalgintzako erakunderen bati ere. Ez nator bat. Uste dut, gainera, balorazio hori egiten dela proposamena Geroa Baik eta Izquierda-Ezkerrak egin dutelako.

Txikitasunaren ideiarekin bozeramaleek diote aldaketa hori lehenengo urratsa baino ez dela. Horrekin ados. Lehen urrats ederra, gaineratuko nuke nik: aspaldi eman beharrekoa eta aspaldi eman gabea. Legea lehenengo urratsa da; gero, gauzatu egin behar da, gobernuak gauzatu ere. Jakina. Lege hau, eta beste edozein. Baina proposatzen den aldaketak aukera emango die Nafarroako gurasoei, lehenengoz eman ere, seme-alabak euskarazko irakaskuntza publikoan matrikulatzeko, nahiz eta “eremu erdaldunean” bizi. Ez da, beraz, aldaketa txikia. Galdetu bestela, eremu horretan bizi diren guraso euskaltzaleei.

Maiatzeko hauteskundeetatik aterako den parlamentuak gobernu aurrerakoi eta euskaltzalea osatzeko aukera emango balu, parlamentu ezkerreko eta euskaltzale horrek ez ditu hizkuntza ereduak aldatuko: Nafarroan jarraitu egingo du G ereduak.

Nik lan egiten dudan institutuan, esate baterako, hiru hizkuntza eredu daude: Euskal Autonomia Erkidegoan ohikoak ditugun A eta D eta, horien osagarri, G ereduak. G, nonbait, “gaztelania” hitzetik harturikoa, eredu horretako ikasleek ez baitute euskaraz ezertxo ere ikasten. A eredukoek euskara ikasgaia dute, besterik ez. Gure institutua, Nafarroako handienetakoa, eremu mistoan dago. Eremu erdaldunean balego, ez litzateke A eredurik eskainiko, ezta D eredurik ere. Ikasleek ez zuten euskara (are gutxiago, euskaraz) ikasteko aukerarik izango. Aukerarik ez. Horrela daude Iruñerriatik beherako ia institutu publiko guztiak: euskarazko eskaintzarik gabe. Oker ez banago, Lizarrako institutu publikoa da salbuespen bakarra.

Aldaketa egiten denetik aurrera, eremu erdalduneko ikasleek ere izango dute Nafarroako gainerako ikasleek duten eskubide berbera. Ez deritzot horri aldaketa txikia. Batez ere kontuan hartzen badugu

zenbat urte igaro behar izan diren aldaketa ustez txiki hori gertatzeko.

Izan ere, legea helburu horrekin aldatzeko lehenengo ahalegina aspaldikoa da: dagoeneko hogeitau urte igaro dira! 1995ean, Eusko Alkartasunak –1986an, Euskararen Legearen kontrako botoa eman zuen alderdi bakarrak– eta Alderdi Sozialistak horixe bilatu zuten Nafarroako Parlamentuan: Euskararen Legea aldatzea, horrela Nafarroa osoko ikasle guztiek izan zezaten euskaraz ikasteko eskubidea eta aukera. Ez zuen aurrera egin. Parlamentuan bozkatu ere ez zuten egin, UPNk eta Herri Batasunak iragarri baitzuten kontrako botoa emango zutela. Azkeneko horiek, nonbait, ez zutelako “txikikeriatan” jardun gura eta lege erabat berria eskatzen zutelako. Jakina: legea ez zen proposatzen zen moduan aldatu, baina lege berririk ere ez zen egin.

Hamahiru urte geroago, 2008an, beste ahalegin bat egin zen, Izquierda Unidaren (IU) eskutik. Oraingoa baino ahalegin murriztagoa izan zen arren, oposizioan zeuden alderdi guztien babesak izan zuen (gogoan izan behar da Batasunari hauteskunde haietan parte-hartzea debekatu egin ziotela) baina, beste behin, ez zuen aurrera egin. Orduko hartan, Aralarreko parlamentari bat oporretan joana zelako.

Oraingoa, beraz, hirugarren saiakera da. Hirugarren saiakera, orain arte aldatzerik egon ez dena aldatzeko. Eta ematen du, oraingoa bai, aurrera egingo duela. Eta hala eta guztiz ere, aldaketa txikia? Ia hiru hamarkada behar izan ditugu euskararen kontrako lege hori aldatu ahal izateko, eta aldaketaz diogun bakarra da “txikia” dela? Hori horrela balitz, benetan aldaketatxo baten gainean berbetan ariko bagina, ez du ematen aldaketa handiagoetarako gaudenik. Gehiago esango dut: maiatzeko hauteskundeetatik aterako den parlamentuak gobernu aurrerakoi eta euskaltzalea osatzeko aukera emango balu, parlamentu ezkerreko eta euskaltzale horrek ez ditu hizkuntza ereduak aldatuko: Nafarroan jarraitu egingo du G ereduak. Alegia: gobernu berritzaile hori ere ez da lege-aldaketa hau baino harago joango.

Hori guztiori dela eta, onerako den aldaketa bikoitz baten atarian gaude: lehenengo eta behin, euskaraz ikasteko aukera Nafarroa guztira hedatuko delako eta, bigarren, ezker abertzaleko parlamentariak, hogeitau urte geroago, pragmatismoaren bideari jarraitu eta aldaketaren alde bozkatzeko dutelako. Hori ere ez da aldaketa txikia gero! ■

Gure independentzia harpidedunak zareten pertsona eta talde askoren sarean oinarritzen da

Eskerrik asko ARGIAzale! Zure ekarpenari esker hau guztia egin dugu:

Argia Eguna Usurbilen: Gure balioak elkarrekin praktikan bizitzeko eguna

Durangoko Azokaren harira, #darpidegu harpidetza kanpaina arrakastatsua

Kike Amonarrizen "Azken Txorakikeriak" liburuaren argitalpena

"Gure esku dago": giza-katearen jarraipena egiteko medioen arteko elkarlanaren sustatzaile

ARGIA English kanala martxan, nazioartean Euskal Herriaren berri emateko

Prekarietatearen aurpegiak eta Auzolan esperientziak sailak argitaratu ditugu astekarian urte osoan zehar

Hainbat ekimenen zuzeneko jarraipena egin dugu: Ondarroako Topaketa Feministak, Herri Harresiak, Zestoako TS Fundicionesen langileek egindako itxialdia eta Iruñeako abortu eskubidearen aldeko manifestazioa

Bidea urratu duten bertsoak liburuxka plazaratu genuen

2014ko urtarrileko Presoen Euskal Herriratzearen aldeko manifestazioaren posterra

Euskarazko kalitatezko kazetaritza seinalatzen duten ARGIA Sarien 25. Edizioa

**Egizu. Egiozu.
Jarri ekonomikoki zure tanta
etorkizuna margotzen jarrai dezagun**

ARGIA astero 12 euro baino ez*

ARGIA hilean behin 4 euro baino gutxiago**

Eskaerak: ☎ 943 371 545 | harpidetza@argia.eus | www.argia.eus/harpidetza

«Irakurtzearen, idaztearen eta ezer ez egitearen artean banatzen dut denbora»

Frantzia aldeko idazleen artean ezagunetarik, euskaraz ere ohiko bilakatzen ari zaigu Jean Echenoz (Orange, 1947). Gurera itzulia izan den laugarren liburua du 14, Gerla Handiaz ari dena, aurrekoak bezala Gerardo Markuletak euskaratu eta Meettok etxeak argitaratua.

| ARITZ GALARRAGA |
Argazkia: Oriol Clavera

HITZ GUTXIKO GIZASEMEA, oraindik gogoan dut lehen aldiz elkarrizketatu nuen eguna: *Ravel* eleberraren euskarazko bertsioa eman nahi, eta, “eskerrik asko, baina bidali didate Donostiatik aleren bat” erantzun zidan, siku. Handik aurrera irribarre gutxi, ia hitzak bezain. Halakoa du Echenozek literatura ere, Gerla Handiaz, 14ko Gerraz, Lehen Mundu Gerraz ari den 14 eleberria, adibidez: 110 orrialde eskas. Irribarreak agian



“Gerrari buruzko eleberri bat baino, gerra garatu bitartean gertatzen den eleberri bat egin nahi izan nuen”

gehixeago, guda oineko eszena honetan esaterako: “orquestra bere egitekoa betetzen ari zela, bala batek baritonoaren besoa zeharkatu zuen, eta tronbonista larriki zauriturik erori zen (...) taldea murriztu arren, musikariek jotzen jarraitu zuten okerreko notarik batere gabe”. Batzuek ez dute gehiegi maite izan, *ni fu ni fa, mutxoasmo* eta abarrekoak irakurri ahal izan ditugu. Beste batzuek maite izan dute gehixeago: “Hasi, irentsi eta bukatu. Eserialditxo batean. Ez da erraza hain urrian hain ugari esatea”. Dena delakoarekin, proba egin dezake irakurleak: gogoratu, 110 orrialde eskas baino ez dira. Elkarrizketa hau halaber, hitz kopuruari dagokionez, behintzat, ez da izan salbuespena. Hauexek dira atera dizkiogunak.

Asko idatzi eta argitaratu da Gerla Handiaz, luze gabe pasa den 2014an, gogoratu baita hasi zenetik ehun urte joan direla. Zuk zeuk ere haxe diozu eleberrian: “Hori guztia hamaika aldiz deskribatu izan denez gero, beharbada ez du merezi berriro ere opera higuigarri eta kirastu honekin luzatzea”. Eta, hala ere, idatzi egin duzu nobela bat Gerla Handiaz. Zergatik?

Kasualitatez ia. Gerra horri buruzko familia dokumentuak aurkitu nituelako, eta paper horien irakurketaren ostean gaiari buruz gehiago dokumentatzeko irritsa izan nuelako. Hasiera batean, ez zen inondik inora proiektu literario bat, ez bazen jakin-minezko aferra pertsonala. Iritsi zen momentu bat, ordea,



“Geure garaiko bitartekoekin landu nahi izan dut Gerla Handiaren gaia. Azken urte hauetan Frantziako hainbat autorek landu du gai bera eta erabilitako formak ez dira, noski, XX. mende hasierakoak”.

non hainbat egoera –erreal nahiz irudizkoak, edo gertaera errealetatik irudikatutakoak– eta hainbat eszena artikulatu ziren fikzio posible baten gisara.

Opera batekin konparatu izan duzu gerra, liburuan berean: “nahiz eta gerra, opera bezala, hotsandikoa, hanpatua, neurrigabea, luzamendu penagarritz betea izan; nahiz eta, operak bezala, zarata handia egiten duen, eta, askotan, luzarora, aspergarri samarra den”. Gerraz eleberrian egiten duzun erretratua, kontrara, ez ote den gehiago ganbera-musikarako obra baten antzekoa: apalagoa, lañoagoa, barnekoagoa, gerraren horrorea bera ez ote dagoen arras txikiagotua.

Inongo unetan ez dut izan, noski, Lehen Mundu Gerra bere horretan lantzeko intenziorik. Proiektu askozaz ere zabalagoa eskatuko luke asmo horrek. Gatazkan katigatutako lauzpabost gizon-emakumeren bizitzet heldu nahi izan nien, horien eguneroko existentziari, eta etorkizun posibleei. Nola esan: pixka bat gerrari buruzko eleberri bat egin baino, gerra garatu bitartean gertatzen den eleberri bat egin nahi izan nuen.

Eta gerraz ari garelarik, adibidez, edo bestelako afera labain-garrantzizkoek, zertarako gai da

literatura? Afera horiek azaltzen laguntzeko? Ulertzen saiatzeko?

Ez naizenez historialari, nire asmoa ez da ezeren gaineko esplikaziorik ematea. Ez eta ezer ulertzen saiatzea ere. Gerla Handiaz irakurri ditudan eleberri klasiko gehien-gehienak gatazkan parte hartu zuten jendeak idatziak dira, are beren garaiko hizkera batean idatziak. Geure garaiko bitartekoekin landu nahi izan dut gaia neronek. Ez naiz bakarra izan, bistan da. Azken urte hauetan, Frantziako autore garaikide ez gutxi hunkitu dituen gaia izan da 14ko Gerra, eta bakoitzak bere modura landu du, zeinak ez baitira noski XX. mende hasierakoak.

Oro har zure liburuetan, ezin zen bestela izan 14 honetan, dokumentazio lan eskerga nabari daiteke. Seinalatu dizkizute soldaduak motxilan daukanaren inbentarioa, edo jan ezinezkotzat izendatu ziren animalien zerrenda: azeria, belea, erbinudea eta satorra. Nolaz prestatzen duzu eleberri baten idazketa? Kasu konkretu honetan, zeintzuk izan dira irakurketak?

Bada, aurreko erantzunean esan bezala, gai eta garai horretako eleberriak, batetik: Frantzia aldekoak batzuk (Roland Dorgeles, Henri Barbusse, Gabriel Chevallier eta abar), Alemania aldekoak beste batzuk (Erich Maria



Remarque, Ernst Junger eta abar). Baina baita lan historiko mordoxka bat ere, denbora hartako lekukotzak, gerra-kaierak. Era berean, kontsultatu nituen eskutitz asko, argazkiak, filmatutako irudiak.

Gerla Handiak zera ekarri zion Euskal Herriari: ez bakarrik drama sozial alimaleko bat, belau-naldi baten galera –aipatzen da 6.000 hildako eragin zituela–, baizik eta Frantziaren irudi solidoago baten ezartzea ere bai, bere mugena, bere batasunarena, bere hizkuntzarena. Zer ekarri zion, ordea, Frantziaren osotasunari?

Lehen Mundu Gerrak presentzia oso bizia du frantziarron memorian. Sarri galdetzen diot neure buruari presentzia memorial hori ez ote den handiagoa Bigarren Mundu Gerrarena baino. Baina galdera ergela da inondik ere. Pentsa daiteke bi Mundu Gerrek gerra bat eta bakarra osatu zutela.

Zure eleberri *Ravel* euskaraz argitaratu zenean, 2007an, esan zenigun sentitzen zenuela “fikzio

hutsarekiko halako akidura bat (nahiz kontzienten naizen fikzioa ez dela inoiz purua)”, eta era berean “errealitatera berariaz nobelarenak diren tresnekin begiratzuz hurbiltzeko asmoa”. Maurice Ravel, Emil Zatopek eta Nikola Teslari eskainitako “bizitza imajinarioen trilogia” bukatuta, fikzio hutsera itzuli zara berriz.

Egia da momentu batean, nire lanari dago-kionez, fikzioagandik urruntzeko beharra izan nuela, bestelako forma batzuk bilatzeko beharra. Baina dagoeneko listo, iragana da garai hura.

Eta fikzio hutsetik orain, baina, dozenatik gora libururekin, nola aurre egin lan berri bakoitzari? Zein jarrerarekin, zein helbururekin?

Ikasten ez den langintza bat da idaztearena. Esperientziak ez du ezer irakasten, sobera ez errepikatzearen ardura izan ezik. Liburu berri bakoitzari ekitea zaila da halaber, intimidatzailea, batzuetan umiliagarria, lehen liburu baten idazketa bezain.

Esan izan da zure idazle lanak baduela artisautzatik. Dokumentazio aldia aipatu diguzu hemen, argazkiak, soinuak, paperak bilatzea. Inon irakurri dugu etxetik atera eta liburutegietara joan zalea zarela, jendearekin solasean aritzekoa, grabatzen diezula, gero dena transkribatzeko.

Dokumentazio aldia erabat da pasionagarria, beti. Arriskua da bere horretan objektu bat bilakatzea, bukaerarik gabekoa. Aurkitu behar da momentu bat, bitarteko bat muga ezartzeko, eta idaztearen lanari ekiteko.

Halaber, ez zara literatura aretoak gehiegi maite dituen horietakoa, ez telebista platoak, ez bereziki prentsa-agerkariak. Zeintzuk dira jarrera horren abantailak? Eta desabantailak?

Abantailak baino ez ditut ikusten. Hala ere, pixka bat esajeratu duzu: tarteka iristen zait telebistara joateko gonbidapenen bat. Eta tarteka joan egiten naiz.

Irakurketa beste gauza bat da, ordea. Ze garrantzia du irakurtzeak idazlearen lanbidean? Gustave Flaubertez gain, zeintzuk dira zure gaur egungo irakurketak?

Nire denbora banatzen dut irakurtzearen, idaztearen eta ezer ez egitearen artean. Orain eskuartean dudan liburuetako bat: Marcel Prousten biografia, Jean-Yves Tadie idatzia.

Zure azken liburua, *Caprice de la reine*, ez da orain artean iritsi gure artera. Zertan den azalduko diguzu?

Zazpi kontakizun aski laburrez osatutako bilduma bat da. Bakoitza, gutxiago-gehiago, leku bati, paisaia bati, hiri bati eskainia. ■

Marinelaren guraso berriak

Pertsonaia mundura ekarri zuen Hugo Pratt hil zenetik 20 urte beteko diren honetan, Corto Maltese bizirik ikusiko dugu berriz, urrirako iragarri duten album berrian. Juan Díaz Canales eta Ruben Pellejero espainiarrei egokitu zaie ikusmin handia sortu duen komikia osatzea eta azkeneko istorioaren jarraipena izango dela aurreratu dute.

| GORKA BEREZIARTUA MITXELENA |

HORRELA KORIK NOLA EGITEN DEN, berezko egilearekin kontsultatzea ezinezkoa denean? Ez dirudi ouija baliatuko dutenik Pratt zena-ekin hitz egiten saiatzeko. Canalesek iazko urrian *El País* egunkariari adierazi zionez, “autoreak gara, eta guretik pixka bat izango du, baina pertsonaiari fidel izatea da helburua eta, ahal den neurrian, grafismoari ere bai. Sailaren jarraipena denez, super arduratsuak izaten ari gara kronologia-ekin eta pertsonaiaren bibliografiarekin”.

Lehen emaitzak ikusi ahal izan dituztenek –Pratten biografo Dominique Petitfaux-ek, berbarako– emaitza bikainez hitz egin dute *Le Figaro*ekin solasean. Pratt “klasikoaren” giroak gogora ekarri dizkiola esan du Petitfauxek, *Jesuit Joe* albumak zeukan itxuraz akordatu dela.

Fan batek berreskuratua

Obra berriaren lehen laginak ikusi dituztenei buruan oihartzun

horiek eragin izana ez da harritzekoa, pertsonaia berreskuratuko duen marrazkilaria Ruben Pellejero dela kontuan izaten badugu: 1985ean Dieter Lumpen sortu zuen, Prattek

sortutako marinelaren eragin nabarmena zeukan pertsonaia.

Argitalpen handi baten aurrean gaude, sortuko duen ikusminarengatik bezainbeste publikatzeko hartuko diren lanengatik: hiru argitaletxeren elkarlana –Casterman, Rizzoli eta Norma–, eta gutxienez 150.000 aleko tirada.

Zoritzarrez, Maltese erdare-tan baino ez zaigu berpiztuko. Urrun daude 1980ko hamarkadaren hondarrean Baionako Antxeta argitaletxeak egindako ahaleginak: *Ethiopikoak* euskaraz irakurtzeko aukera eman zuen apustu hark, baina segidarik ez du izan. Agian komikiak inguruotan bizi duen azkenaldiko berpizkundetxoaren barruan, norbait animatuko da berriz. ■



www.bertsozale.eus



ZUBIRI

Gautxori jatetxea
Otsailak 15, 17:30

FINAL-LAUDENAK

OSKAR ESTANGA



AMAI ELIZAGOITI



AIMAR KARRIKA



JOSEBA BELTZA



SARAI ROBLES



SAIOA ALKAIZA



Afrikatik Suediara tabu sexualak gainditzen

Harreman sailkaezinak, familiaren kontzeptua, generoa, maitasun erromantikoa... Zinegoak Bilboko Gaylesbotrans 12. Nazioarteko Zinema eta Arte Eszenikoen Jaialdian, sari nagusiak lortu dituzten bi pelikulek lehen planora ekarri dituzte ezkutuan geratu ohi diren gaiak.

| MIKEL GARCIA IDIAKEZ |

BERE BURUA heterosexualtzat duen Andreas gazteak gustuko du Sebastian androgino eta femeninoa. Pasioz biziko dute elkarren arteko harremana, baina mutila da Sebastian, bere alde femeninoa bezainbeste maite du bere alde maskulinoa, eta hori ez du horren gustuko Andreasek... Gizartearen arauai aurre egin nahi dien harreman batez eta generoetan sailkatzek ezartzen dituen mugez ari da Ester Martin zuzendari suediarren *Nånting måste gå sönder* (Zerbait apurtu beharra dago). “Biolentzia, pasioa, maitasuna eta poesia darion obra” delako, fikziozko luzerik onenaren garaikurra lortu du.

Pilar Monsell zuzendari espainiarrak berriz, aita du protagonista *África 815* lanean (dokumental luzemetrairik onenaren saria jaso du): aitalau liburukitan du idatzia bere bizitza, eta halako batean, haren memoriak irakurtzera ausartu da alaba, memoriotan sakontzearekin batera aita itaunduz eta dokumentala errodatuz. Hala deskubritu du zuzendariak Sahararekiko aital duen lilura, soldadutza egin zueneko oroitzapenei lotuta. “Aita homosexuala dela ez



da inoiz tabua izan. Madrildik Saharara soldadutza egitera joan eta gizonez inguratuta, hain mundu maskulinoa izan arren, paradoxikoki liberazio modukoa izan zen aitarentzat, bere orientazio sexuala libreago bizi zezakeela sentitu eta ulertu zuen han”.

Epaitu gabe entzuten ikastea

Dokumentalak iraun duen hiru urteko prozesuan, entzuten ikasi

Argazkian, *Nånting måste gå sönder* (Zerbait apurtu beharra dago). 28 herrialdeko 94 film eta hiru antzezlan eskaini ditu aurten Zinegoak jaialdiak.

duela dio zuzendariak, aita epaitu gabe entzuten, kontatzen zuen historia kontatzen zuela. “Gustuko ez ditugun bizitzako aferen onarpenaz” mintzo da filma. Finean, maitasun erromantikoa edo familia bat eraikitzeke proiektua bezalako babesguneak apurtzen direnean, frustrazioa eta porrot sententzia nagusitzen direnean, maitasuna edota familia gisako kontzeptuen esanahiaz hausnartzeko eta benetako desioetan sakontzeko parada proposa izan daiteke. “Elkarrekin bizitzeko, besteekin harremanak izateko moduarekin du zerikusia maitasunak, ez litzateke maitasuna bikote harremanera mugatu behar, hortik harago doan zerbait da”. ■



Liburu azoka

Mungian, otsailaren 20tik martxoaren 1era Matxin plazan.

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!



Leire Lopez, Ibon Egaña, Iratxe Retolaza eta Iban Zaldia joan den asteazkenean Donostian.

Kritika gabe esaidazue nola irtengo naizen plazara

KONTZERTU BATEN itxura dauka Donostiako Kaxilda liburu dendak otsailaren 4ko arratsaldean elkartu den jende kopuruarengatik. Munduan egiteko dauden gauza guztien artean eta, hotzaren beldur, bertan behe-
ra utz daitezkeen plan guztiak kontuan izanda, ez da meritu makala. Ibon Egaña Etxeberrriaren *Izan gabe denaz* saiakera argitaratu berriak du meritua. Haren aurkezpena baliatuz antolatuta dute mahai-ingurua: baterian Leire Lopez Ziluaga, sartu eta atzeko lerroetan lekuren bat aurkitu dugunerako literatur kritikaren funtzioaz hizketan jarriak ditu Iban Zaldia (sintetizadorea), Iratxe Retolaza (gitarra) eta Egaña bera (ahotsa).

Zalduak “aberriaren deia” aipatzen du, alegia, “euskal literatura eraikitzeko” egiten dela kritika. Eta zentzu horretan, balio beharko lukeela irakurri behar litzatekeen liburuaren seinalatzeko bezainbeste, arreta handia jaso duen lana zalantzan jartzeko. Retolazak punteo batekin erantzuten dio, berak ez duela kritika ulertzen irakurri behar diren edo ez diren liburuen katalogo bezala, galderak sortuko dituen diskurtso gisa baizik. Eta orduan entzuten dugu Egaña *frontman*-aren ahotsa lehenbizikoz, esanez liburuan landu duen alorrari dagokionez behintzat –hedabideetan argitaratzen den kritika–, obren balorazioa egitea badela prentsako iruzkingilearen zereginetako bat.

Klasiko batzuk jo ditu laukoteak, besteak beste, euskarazko kritikagintzak izan duen jarrera pendularren gaia. Nola pasa den formari bakarrik –edo nagusiki– garrantzia ematetik gaur egungo kritika soziologikoagora. Eta erdibidearen premian bat egin dute denek, nahiz eta kanta bukatu denean ez den oso argi geratu non artikulatu litezkeen liburu baten alder-

di estetiko eta soziala –imajinatzen dugu, aldiro kritikariak bere buruarekin eta bizi duen testuinguruarekin negoziatzen duen zerbait dela–.

Azken diskoko pieza bat ere atera da mahai gainera, Egañak aipatu baitu kritikek baino oihartzun handiagoa dutela azkenaldian liburuei buruz Twitterren esaten direnek. Ez hori bakarrik, gehitzen du Zalduak mahaiaren izkinatik: badira txioka iragartzen diren liburu kritikak ere, gero inoiz iristen ez direnak.

Beraz: legitimitate arazoak ote ditu ofizio ere deitzerik ez dagoen langintza honek? Zerk ematen dio kritikariari zilegitasuna? Lopezek abilki eraman du taldea azken konpasetara: Retolazaren ustez idazle jakin batzuekin harremana izateak, “koadrillak” –literaturaren inguruan mugitzen den talde gisa ulertuta– edo komunitate jakin batek –mugimendu sozial edo politikoei, berbarako– laguntzen dute posizio bat lortzen. Kritika negatiboek ere bai, gehitzen du Egañak, “norbaitekin” sartzen baldin bazara behintzat.

Bis baterako abiapuntua izan da azken kontu hori: posible ote diren liburuen kritika negatiboak euskaraz. Ba, segun eta non, segun eta nori, denak ados horretan. Euskal literatura existituko da bere buruari auto-kritika egiteko gai denean. Baina, urrun gaude hori lortzeko klimatik. Publikatzen diren kritika gehienak baikorrak edo oso baikorrak direla aipatzen du Egañak liburuan. Unibertsoan parekorik ez duen literatura daukagu ala “Mozal legea” baino lehenagoko zentsurak ezarri dizkiogu gure buruari, auskalo zeren mesedetan? ■

Gorka Bereziartua Mitxelena

Haur eta gazte literatura

Hiltzaileak
Leire Salaberria

Pamiela, 2013
32 orrialde



Hiltzaile maiteak

VIII. ETXEPARE SARIA eskuratu zuen album honek izenburu eta azal deigarriak ditu. Hiltzaileak terminoa beti erlazionatzen dugu gaizkileekin, indarke-riarekin, jokabide maltzur eta gizartearen kontrako-ekin. Eta zalantzak uxatzeko azalean bertan ageri zaigu aizkora bat... gizaki baten gorputz zati bat eta gizaki horren eskutik oratuta aizkora: hiltzaileak daukan arma.

Leire Salaberria ilustratzaileak bigarren ez irabazi du Etxepare saria eta oraingoan bi bereizgarri nagusi dituen obra batekin; testuari dagokionez hitz joko batean oinarrituriko testua dugu, irudiak, aldiz, piro-grabatuen bidez eginiko ilustrazioak dira; eta teknika hori argumentuarekin ere erlazio-naturik dago –izan ere, orriak erretzen edo erredu- ra markak egiten lortzen dira irudiak–.

Albumeko orrietan barrena abiatzen den irakur- leak kolore gutxiko orriekin egiten du topo, marroi, beltz, gris... koloreak erabiliz eginiko irudi sin- pleak –haurrentzako literaturan hain landua den sinpletasuna–; “Hiltzaileek uniformeak janzten dute. Eskularruak eta gomazko bota beltzak”. Eta libu- ruaren azaleko irudia ageri zaigu bere osotasunean –azala eta kontrazala hartuz–; “Batzuek bibotea daramate, baina ezinezkoa da ikustea, burua ere estalita eramaten baitute” eta hainbat lagun ekintza ugari egiten ari diren bitartean urrutian, pertsona –hiltzaile– baten lehen plano dugu, buruan begiak

bakarrik ageri zaizkiola buruko estalki antzeko batek ezkutaturik.

Hiltzaileek egiten dituzten hamaika gauza ikusi- ko ditugu hurrengo orrietan, bai eta haiei buruzko ezaugarriak –igerilari apartak, indartsuak, zain ego- ten dira...– harik eta liburuaren amaieran argitzen den arte nortzuk diren hiltzaile horiek: suhiltzai- leak!

Leire Salaberriaren liburua jolasa da: ez hitz jokoaren ondorioz bakarrik, baita orrietan irakur- tzean ageri diren detaile txikiengatik eta ilustratzai- leak eginiko proposamen literarioengatik ere. Eta hori guztia erraztasunetik, sinpletasunetik abiatuta- ko proposamen sortzaile bati esker. Izan ere, ira- kurleak orrietan aurrera egin ahala, egileak propo- saturiko pisten eta deskribapenen ondorioz hasierako ustea aldatzen duela ikusiko du; hiltzai- leei buruzko aurreiritzi txarra izatetik sinpatia eta haien aldeko jarrera izatera pasatuko da. “Nork ez ditu maite hiltzaileak?” esaldiarekin aldaketa horri helduz.

Finean liburu bitxi eta erakargarria, jolas egiteko aproposa, umeei irakurtzeko eta haiei ikus eta irakur dezaten uzteko moduko proposamena. Eus- kal letretan azken urteotan ongi egiten ari direnen adibide argia. ■

Xabier Etxaniz Erle

INAKIBEREZIARTUA
Enbalajeak · Biltegiratzea eta Logistika · Zerra eta eraikuntza

25 urte baino gehiago paketatze
industrialaren sektorean

Jauregi auzoa, 75 · HERNANI · (Gipuzkoa) · ☎ 943 552 828
www.inakibereziartua.com · mjm@inakibereziartua.com

badoa...

Ain_1 taldearen Badoa Badirau diskoa
Hemen eskuragai
<http://ain1.bandcamp.com/album/badoa-badirau>



Joseba Irazoki eta lagunak
Joseba Irazoki eta lagunak
Bidehuts, 2014

Joseba Irazokiren abentura berria

BETI HARRITUTA uzten nau Joseba Irazokik. Jendaurrean jotzen ikusten dudanean eta bere lan bat entzuten dudanean txalotu egiten dut, beti zerbait berezia edo desberdina erakusten didalako. Musika-ri aparta da, edozein musika mota edo estilo jotzeko gai da, bai, baina jakin-min eta irudimen handia du, eta barruan daukana ederki ateratzen du. Sentitzen duen bezala jotzen du, aske, lotsarik edo konplexurik gabe, eta bide berriak arakatzeko oso ongi pasatzen duela nabarmena da. Hori guztia estimatzeko da.

Bere ibilbidean lan ugari kaleratu ditu (*Oso banda, Ninika, Arimaren bila, Euria ari du, Negurdin, Pertsona, Folk me lastana, Tokitik kanpo, Dosi, Tokian tokiko, Olatuetan, Gizona xakur egin zen...*), talde eta musikari ugarirekin aritu da (Xabier Montoia, Petti, Onddo, On Benito, Atom Rhumba, Rafa Rueda, Anje Duhalde, Maixa eta Ixiar, Mikel Erentxun, Duncan Dhu, Nacho Vegas, Terry Lee Hale, Barrence Whitfield...), eta denekin ikasi du zerbait, eta egitasmo guztietan bere ukitua utzi du.

Joseba Irazoki eta lagunak diskoa iaz osatu zuten, baina ideia urtebete lehenago sortu zen. Donostiako Lugaritz kultur etxean kontzertu bat beste hainbat musikarirekin egitea proposatu zioten Josebari. Garai hartan bakarka ari zen, *one man band* gisa. Kontzertua oso ongi atera zen. Josebak kantu berri batzuk probatu zituen saio hartan, kantu horien gainean lanean hasi zen, eta azkenik Joseba Irazoki eta lagunak diskoa egin du.

Lan honetako kantuak, berez, gehien bat riff modura jaio ziren, baina talde soinuaz ederki jantzita daude. Doinuak iradokitzaileak dira, hunkigarriak, ñabarduraz eta xehetasunez josiak, eta ukitu misteriotsu bat ere badute. Batzuk lasaiak eta leunak dira, eta beste batzuk biziagoak. Besteak beste, melodia politak entzun daitezke, rock ukituak, doinu errepikakorrak, eta esperimentazio eta psikodelia kutsuko pasarte batzuk ere bai.

Ekoizpena aipagarria da. Josebak eta Johannes Buffek oso lan ona egin dute, eta moldaketak egiterakoan ahalegin handia egin dutela suma daiteke. Gitarrak dira oinarria, baina ahotsak, haize eta hari

musika tresnak, eta gainerakoak ere nabarmentzeko modukoak dira.

Joseba Irazoki eta lagunak hauek dira: Joseba Irazoki (ahotsak, gitarra, banjoa, autoharp eta ekoizpena), Felix Buff (bateria eta perkusioa), Iban Urizar (tronpeteta eta klarinetea), Igor Telletxea (tronboia eta bibrafonoa), Jaime Nieto (baxua), Ager Insunza (gitarra eta biolina), Johannes Buff (grabazioa, nahasketak, gitarra, ahotsa eta ekoizpena) eta Iñigo Irazoki (grabazioa eta zuzeneko soinua). Masterizazioaz Jonan Ordorika arduratu da, eta diseinuaz Ramon Zabalegi.

Musikak Joseba Irazokik sortuak dira *Neretzat ote bai?* kantuarena izan ezik, Felix Buffek sortua baita. Hitzen egileak, berriz, Dani Irazoki, Mikel Taberna, Pello Lizarralde, Orixe eta Beñardo Goietxe dira.

Harremanen eta maitasunaren inguruan mintzo dira kantuak, besteak beste: “Iragana iragana, hiregana hiregana, zauriak beti uzten du orbana, biok elkarri zor bana” (*Iragana*, Mikel Taberna); “Hire mingaina nirean, ilargi zaharra ahora, ni ez naun inor hi nire baitan hartzeko” (*Ahotik ahora*, Mikel Taberna); “Plisti ta plasta dut bihotza maiteminean blai bustita, plisti ta plasta dut bihotza maite ezinean blai saltoka” (*Plisti ta plasta*, Beñardo Goietxe).

Baita ihes egiteaz ere: “Baso ertzean nago mirari baten zain, milaka onddo dago lozorroan hantxe, basoaren sabel beroan, onak dira onak eta txarrak hobeak, baso ertzean nago opari baten zain, bildu eta janen ditut ase arte, eta oso urrun eramanen naute” (*Baso ertzean*, Pello Lizarralde).

Eta kritika eta salaketa ere egiten dute: “Gizaki eroak ziztu bizian alferrik asmatu ta aberasteko” (*Bonbilla eta elektrotxatarra*, Beñardo Goietxe); “Zenbat etxe berri, hainbat zor zahar, nolako zor halako gezur, bankuan gezur etxean hezur” (*Desauzidioa*, Beñardo Goietxe).

Diskoa behin eta berriro entzuten ari naiz, eta entzunaldi bakoitzean zerbait berria iradokitzen didate Josebaren eta bere lagunaren doinuek.

Txalo bero bat, Joseba! ■


Joxi Ubeda

Asiako kutsaduragatik Amerikako zikloiak bortitzago

2006KO IRAILAREN 1ETIK 2007ko apirilaren 10era arte bildutako datuetan oinarrituz, NASA espazio agentziak bideo adierazgarri batean kokatu du Asian kutsaduraren eraginez sortutako elementuen higidura.

Kutsadura-lainoak nonahi higitzen dira, eta euriaren bidez erortzen diren lekuetan alergia, asma eta arnasbideetako gaixotasunak areagotu ditzakete. Lekuan lekuko eragina neurteza ez da lortu, lainoak mundu osoko zeruetan bidaiazen dutela baino ez da ikusi. Hala ere gertaera bat garbi ikusi dute: Asian –batez ere Txinan– askatutako aerosolek, Ozeano Barea zeharkatzean, itsasoko ura xurgatzen dute, eta Amerikako mendebaldera heltzean ohi baino hodei trinkoagoak sortzen dituzte. Hodei horiek biziki lodiak dira Ozeano Atlantikora eta Karibera heltzean, eta oso zikloi bortitzak eragiten dituzte.

Gertakaria urtero errepikatzen ote den aztertzen ari dira, baina badirudi erlazio zuzena dagoela Asiako kutsaduraren eta Karibeko zikloien indarraren artean. Halaber, kutsadura horrek Europako kliman eragina ote duen begiratzen ari dira. ■



NOAA

Urakana Karibearen gainean.

Basque Research webguneak adio

2002an, Elhuyar Fundazioaren bultzadaz eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzaz, Euskal Herrian egiten zen ikerketaren berri ematen hasi zen Basque Research webgunea. Hamahiru urteotan sektoreko erreferentzia bilakatu bada ere, amore eman behar izan du, laguntzarik ezean. Euskal Herrian ikerkuntzarako datozen urte ilunen abisua ote?

www.basqueresearch.com
(Euskaraz)

Ahaztutakoa artifizialki berreskuratzeko bidea

Ikerketa baten arabera, ustez erabat ahaztuta dauden hainbat oroitzapenek garunean iraun dezakete, eta berreskuratu egin daitezke metodo artifizialak erabiliz. Alzheimer gaitzaren lehen faseetan daudenentzat itxaropenaren bidea zabal dezake albisteak.

ttiki.com/334987
(Gaztelaniaz)


Hatzak sudurzuloan sartzea, ona ala txarra?

Gure gizartean oso hedatua dago nor bere sudurzuloan aritzea. Mukiak kentzeko ala besterik gabe hor aritzeko. Txarra al da? Buru hainbat aburu dago gaiaren inguruan. Horrekin lotuta, mukiak jateak infekzioak prebenitzen lagundu dezakeela esan du Kanadako ikerlari batek; antza, hipotesiak ez du arrakasta handirik izan zientzia munduan.

ttiki.com/334989
(Frantsesez)

Alarma faltsua: iaz behatutakoa ez ziren grabitate-uhinak

ESA



Planck satelitearen marrazkia.

2014KO MAIATZEAN zenbait zientzialarik iragarri zuten unibertsoa lehen grabitate-uhinak izan zitezkeenak detektatu zituztela, Planck satelite europarrak jasotako datuetan oinarrituz (ikus ARGIA 2.410). Uhin horien presentzia ezinbestekoa da Big Bang teoria baieztatzeko. Haren arabera, leherketaren lehen unean Unibertsoa bilioika aldiz handitu zen, eta hori jazo izanaren frogetako bat grabitate uhinak lirake.

Zoritxarrez, hedabide eta zientzialari askok aurkikuntza handitzat jo genuena gezurtatu dute Genevan dagoen CNRSko ikerlariak, ziurtzat eman baitute Planck sateliteak detektatutakoak ez zuela grabitate-uhinekin zerikusirik izan. Zain egotea baino ez zaigu geratzen. ■

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera

web garapenak
 multimedia
 aholkularitza
 edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

Astronomiazalearen buruko mina



QUINN DOMBROWSKI-CC BY SA

Sulfitoak gehitu ohi zaizkio ardoari, luze iraun dezan. Ardogintzan gehien erabiltzean den sufrea petroliotik eratorria da.

ESKINOSO BATEK mila ezkur jaso eta ezkutatu omen ditzake negurako. Bada 5.000 ere pilatu ditzakeela dioenik. Iritzi guztietako zientzialari eta astronomiazaleak daude... Bakoitzak berea dio, baina eskinosoari ez diote bere distira urdina kenduko.

Eskinosoa bezalako balakaririk ez dut ezagutzen. Kantu, buila, zalaparta, pio, txio eta txorrotxio, denetik dario. Haren kantu losintxari guztiek belarriak laztantzen dizkirate, maite-maite. Eta hori egiten dakienak ez du buruko minik.

Zientzialari eta astronomiaza-leek, bai, makina bat buruko min izaten dute. Buruko mina buruko

minaren ondotik. Izan ere, mila edo 5.000 ezkur diren zehatz jakin behar hori ez da eraman erraza izango. Ohaideari galdetu behar... Eta mundua buruko minaren inguruan deraikitela iruditzen zaie. Koitaduak. Ardozalearen buruko mina...

Sufre dioxidoa (SO₂) azukrea alkohol bilakatzeko hartziduran bertan sortzen da. Antioxidantea da, eta mikrobioak haztea eragozten du. Baita suntsitu ere. Hain langile fina izanik, ardoei aparteko sulfito dosiak ematen zaizkie. Horrela, ardogileak badaki bere ardoak luze iraungo duela, buruko minak buruko min. Ardogileak bere buruko

mina kentzen du, eta edalontzian edaleari eman. “Sulfitoak dauzka”. Buruko mina beretzat. Astronomiazale izan edo ez, ardoa edan eta buruko mina izatea ez da harritzekoa. Sulfitoaren lanak dira. Azpilanak. Ardogintzan erabiltzen den sufrea petroliotik eratorria baita. Petroliotik ardora, gure erregaira.

Egungo ardo onenak sortzen ari den ardogintza biodinamikoan, astronomiazaleen ilargiari eta planetei aparteko garrantzia ematen dietenak sumendietako sufre naturala erabiltzen hasi dira. Erromatarrek Etnakoa omen zerabiltzen. Haiek bai jakin buruko mina eta astronomiazalea zer ziren. ■

JAKOBA ERREKONDO





Berriz ere emango du!

UHOLDEAK etorri dira, goian-behean. Ibaia errio bihurtzen den lurretan gaude, erribera galantak Atlantikoari begira. Erribera hauek itsasoaren gora-beheren eraginetik babesteko eraikitako muntoak eta zanpiadurak ederki gainditu ditu goitik datorren uholdeak. Ibaiaren arro guztian,

mendietan eta pendizetan korrika bizian bildutako lur onenak dakartza urak. Eta mantsotzean, azpian hartutako erribera hauetan utziko ditu. Lehen ere nekazaritzarako lur onenak direnen gainean arro guztiko lur beltzak. Berriz ere emango dute lur hauek artoa sueltot! ■

Koka ezazu pieza bakoitza dagokion tokian eta Ramuntxo Christy bertsolariak esandako esaldi bat irakurriko duzu.




Erraza

7	6							
		5	4	7	6			1
	4	1	8		5	7		3
	9			3		4		2
	2	3				6	8	
6		4		8			1	
8		2	5		7	9	3	
9			1	6	3	8		
							5	7

Zaila


			8			9		6
	5	9				1		
	6	3	2					
		5		8	1			
7		8				5		4
			7	3		2		
					2	3	6	
		2				4	8	
3		1			8			

Zeharretara eta goitik behera,
hitz bera.



- 1.-Jarri. 2.-Pilotan jokatzeko tresnak.
3.-Neba-arrebaren semea edo alaba.
4.-Arre, gris. 5.-Beldurra, izua.

Erantzunek zenbaki bakoitza inguratzen dute, gezia ateratzen den laukitik hasita eta haren noranzkoa jarraituz.



1. Jokamoldea, jarrera.
2. Idunekoak.
3. Harri landua.
4. Solomoa.
5. Egotzi.
6. Talde lan.
7. Greba.
8. Hilan berpiztea.

Erreondak:

1. Portacera. 2. Lepokoak. 3. Harlandu. 4. Azpizuna. 5. Leporatu. 6. Elkarlan. 7. Lanuztea. 8. Piztuera.

Ertrönboak:

- 5x5:
1. Ipinl. 2. Palak. 3. Illoba. 4. Nabar. 5. Ikara.

5x5:

Puzleak: “Xilabaren funtzioa euskarari plazan leku bat ematea da. Bertsoaritzak lehen baldintza du euskaraz, eta Xilabaren bitartez plaza aterazen da”.

Puzzle:

Zaila	Erraza																
5	7	2	8	7	9	1	6	5	4	5	1	8	7	6	9	5	6
1	8	7	5	6	5	8	7	9	7	5	2	8	7	6	9	5	6
6	9	5	7	2	1	7	1	7	1	8	5	5	2	7	1	8	8
8	6	7	5	7	9	7	1	1	1	5	1	5	6	8	7	7	9
3	1	9	1	5	7	2	6	8	8	6	8	9	5	7	5	2	1
7	1	7	5	8	1	8	1	7	2	7	7	2	6	9	8	6	7
7	5	8	6	1	2	1	5	9	4	5	9	7	5	6	8	1	7
4	2	1	7	6	5	6	5	8	1	6	7	2	9	4	7	5	8
9	5	6	4	5	7	8	7	8	8	5	2	7	1	1	6	9	7

Telebista, etorkizunik gabeko asmakizun hura

HELENSBURGH (ESKOZIA), 1888. John Logie Baird ingeniari, fisikari eta asmatzailea jaio zen. Besteak beste, munduko lehen telebista mekanikoa, publikoki frogatutako koloretako lehen telebista sistema eta koloretako lehen telebista-hodi erabat elektronikoa hark asmatu zituen. Horrek guztiak, telebistaren eta oro har zientziaren historian toki nabarmena ekarriko zion gerora; 2002an BBCren “100 britainiar handienak” zerrendako 44. postuan ipini zuten eta 2006an Eskoziako hamar zientzialari garrantzitsuenen zerrendan sartu zuten. Baina hastapenak ez ziren errazak izan asmatzailearentzat.

1925eko urriaren 2an, Bairdek lehen telebista irudia igorri zuen arrakastaz: bentrilokuo baten panpinaren irudia zen, bertikalki eskaneatutako 30 lerroz osatuta zegoen eta segundoko bost irudi igortzen zituen. Publizitate bila, Bairdek *Daily Express* egunkarira jo zuen asmakizuna sustatzera. Egunkariko albisteen editoreak zera esan zuen, haren lankide batek jasotakoaren arabera: “Jainkoarren! Zoaz harrera gunera eta libratu zaitez han dagoen zoroaz. Irrati bidez ikusteko makina bat duela dio. Kontuz ibili, baliteke labana bat eramatea”.

Egunkariko erredakzioan ez beste leku askotan erakutsi zuen Bairdek ero ez zegoela eta makina hark funtzionatzen zuela. Eta, hala ere, zenbaitek ez zion tramankuluari erabilera komertzialik aurreikusi. Lee Dee Forest (1873-1961) AEBetako asmatzaileak honakoa esan zuen: “Ezin dugu denbora galdu asmakizun horrekin ametsetan”.



JENNIFER WILDER

1936an, *Radio Times* astekariko editore baten esanetan: “Telebistak ez du inolako garrantzirik izango zuen bizitzan, ezta nirean ere”. Handik urte batzuetara, ordura arte soilik irratia hizpide zuen astekarian telebistari buruzko edukiak nagusituko ziren.

1946an hil zen John Logie Baird. Ordurako inork gutxik jartzen zuen zalantzan telebistaren etorkizuna. Darryl F. Zanuck zine ekoizlea zen salbuespenetako bat, besteak beste, *How Green Was My Valley*, *All About Eve* edo *The Longest Day* klasikoak ekoiztu zituen. Urte horretan bertan egin zituen Zanuckek adierazpen hauek: “Jendea berehala aspertuko da gauero egur kontraxafatuzko kaxa bati begira egoteaz”.

Eta ezin esango dugu erabat oker zegoenik, egun jendea bestelako materialez egindako telebista lauei begira egoten baita gauero. ■

Arrastoak

Txakur egosia Atapuercako gizakien dietan



DUELA 7.200 eta 3.100 urte artean Atapuercako (Burgos, Espainia) El Mirador kobazuloan bizi ziren gizakiek txakur etxekotuak, basakatuak, azkonarrak eta azeriak jaten zituzten, Giza Paleoekologiako eta Eboluzio Sozialeko Institutu Katalanak berriki jakinarazi duenez. 24 arrasto fosil —gehienak txakurrenak; horien artean

argazkian ageri dena—, aztertu ondoren, animaliak jan aurretik egosten zituztela ondorioztatu dute ikerlariek. Mendebaldeko Europan espezie horiek elikatzeke erabiltzea ez zen batere ohikoa eta, horregatik, baliteke urritasun garaian hartutako neurrien ondorioa izatea, oraingoz hipotesia besterik ez den arren. ■

JOSE RAMON MARIÑO

ATTAC-EKO KIDEA

«TISA akordioaren helburuetako bat da zerbitzuen pribatizazioek atzerakorik ez izatea»

Euskal Herriko iritzi publikora TTIP eta CETA itun transatlantikoaren berri ozta-ozta iristen hasi denean, Bilbon bizi den arabar ekonomialari honek ongizate estatuari mehatxu egiten dion eta are ilunagoa den beste nazioarteko akordio batez ohartarazi nahi du: TISA. Politika Ekonomiko Alternatiboaren Aldeko Ekonomialari Europarren elkartearen kidea da Mariño, baita mundu osoan TISAren aurkako oposizioa koordinatzen ari den taldekoa ere.

| UNAI BREA |

Argazkiak: Iñigo Azkona



Zer da TISA?

Galdera egokia. Nazioarteko itunen kanpaina betean gauden honetan, TTIP eta CETA dira ezagunenak —ez behar beste, nolana—, eta TISA, berriz, akordio sektorialagoa da, Zerbitzuen Saleroskerari buruzko Akordioa hain zuzen. Zerbitzuen saleros-

ketarekin zerikusia duen guztia arautzeko, edo desarautzeko, ahaleginean dabilta. Negoziazioak Genevan egiten dituzte —otsailaren 9tik 13ra bitartean izango da hamaikagarren erronda—, eta Europar Batzordeak eta 22 estatuk parte hartzen dute, tartean AEBek. Guztira, 50 herrialdek.

Ez dago honezkero zerbitzuei buruzko negoziazio zabal bat Munduko Merkataritza Antolakundean (MMA)?

Bai, Merkataritza eta Zerbitzuen Akordio Orokorra. Baina hark ez du aurrera egiten elite batzuek nahi luketen bezain azkar. Zehazki, zerbitzuen saleroskea —publikoak

“Zerbitzuen Zinezko Lagun Onak”

TISA HITZARMENA negoziatzen ari diren herrialdeek Zerbitzuen Zinezko Lagun Onak izena eman diote euren buruei. 2012an eratu zuten taldea, Munduko Merkataritza Antolakundearen akordioetatik harago iritsiko zen itun bat adosteko xedez. Handik gutxira TISAren negoziazioak abiarazi zituzten.

EB eta AEBez gain, beste 21 estatu daude taldean. Guztira zerbitzuen alorreko merkataritzaren %70 ordezkatzan dute, Europa-

ko Batzordearen webgunearen arabera.

Zerbitzu Publikoen Internazionalak, TISAren aurkako kanpainan burubelarri diharduen sindikatu federazioak, “Korporazio Transnazionalen Zinezko Lagun Onak” deitu die TISako partaideei, akordioaren arriskuez ohartarazteko argitaratutako txosten batean.



barne— arautu nahi dutenez ari naiz; haixek bultzatu dute TISA. Elite horiek metaketa prozesua gauzatzan ari dira itun hauen guztien bitartez, eta denetan TISA da iluna. Kostatzen ari zaigu behatzea.

Ezkutukeria hori bereziki larria da kontuan hartuta denoi zuzenean eragiten diguten gauzez ari direla negoziatzen.

Hala da. Alde batetik zerbitzu publikoez ari dira negoziatzen (hezkuntza, osasungintza, ura, hondakinen kudeaketa...), bestetik gainerako zerbitzuez (profesionalak, enpresa batek beste bati mailegatzan dion eskulana...). Europar Batasunak interes handia du, munduko zerbitzu esportatzaile handiena baita AEBekin batera. Baina munduko herrialde askok daukate zer galdua TISA indarrean jarritz gero, ez baitute zerbitzuak eskaintzeko aukera handirik, jaso besterik ez dute egiten, eta ordaindu. MMAz zegoen funtsezko eztabaidetako bat da hori, ea EBk eta AEBek ez ote duten neurri batean inbaditzaileen gisan jokatzan zerbitzuak eskaintzen dituztenean. Horregatik dute bi horiek berebiziko grina akordioa aurrera ateratzeko.

Eta horregatik TISAn parte hartzen ari diren herrialde gehienak Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundekoak (ELGA) dira?

Ia denak dira ELGAko kideak. TISAren ideia da MMA barrukoa baino negoziazio txikiagoa abiatzea, zerbait alternatiboa nolabait, oposi-

ziorik egingo ez duten guztiak barne hartuta, eta behin akordioa lortuta zabaltzen saiatzea, MMAren barruan gailendu arte.

Zehazki, zer ari dira negoziatzen TISAn? Zer dago mahai gainean?

EBk berak honela esan du: aireko garraioa eta estatuek baizik eman ezin ditzaketen zerbitzuak, hots, justizia, ordena publikoa —hitz batean, polizia— eta defentsa izan ezik, printzipioz zerbitzu guztiak sar daitezke negoziazioan. Hori bai, estatu bakoitzak bere zerrenda negatiboa ezar-

“TTIPi leporatzen diogu ongizate estatuaren hondatzea ekarriko duela, baina seguruenik TISAk askoz eragin handiagoa izango du horretan”

tzeko aukera du, hau da, akordiotik kanpo utzi nahi dituen zerbitzuen zerrenda. Zerrenda negatiboen arazoa da behin emanda ezin dela ezer aldatu. Gainera, hortik aurrera sor litekeen edozein zerbitzu mota —aurrerapen teknologikoari esker, demagun— automatikoki bere eraginpean hartuko luke akordioak, eta negoziagarri bihurtuko litzateke.

Adibiderik eman daiteke?

Duela hamabost urte internetek oso zabalpen txikia zuen, eta merkataritza elektronikoa garatu gabe zegoen. Pentsa zer gertatuko zate-

keen TISA orduan negoziatu balute. Etorkizunean zer? Auskalo. Uneon garatzen ari diren berrikuntzak, herritar arruntok oraindik ezagutzen ez ditugunak, TISAren itzalpean geratuko dira, gure ongizateari eragin diezaioketenak barne.

Zer ekarriko digu TISAk oro har? Osasungintza publikoa liberalizatzeaz ari gara hitz egiten, esaterako?

Ikusteko dago noraino iritsiko diren.

Aurtengo udazkenean Europako Legebiltzarrak TISArekiko zer jarrera duen argitu behar du ofizialki, eta txostena prestatzen ari den legebiltzarkideak, Viviane Reding Europako Batzordeko Justizia komisario ohiak, esan du marra gorri batzuk ezarri beharko direla, TISAk inolaz ere zapaldu ezingo lituzkeenak. Bitxia da

horien barruan sartzen dituela pertsonen mugimenduak; kapitalak aske mugi daitezela, baina pertsonak ez. Bestalde, Redingek esan du TISAk Txina hartu beharko lukeela barne. Kontuan hartzekoa da uneon BRICS [garapen bidean dauden bost herrialde nagusien multzoa] bakar bat ere ez dagoela negoziatioetan; TISAn daudenek herrialde horiek ere erakari nahi dituzte, eta Txina, merkataritzaren ikuspuntutik munduko herrialde garrantzitsuenetakoa ez ezik, beste BRICS guztien traktorea ere bada. [Txinak dagoeneko agertu du akordioan parte hartzeko nahia].



“Nazioarteko merkatuak aktibo pilaketan dihardute, zerbitzu publikoen zati handi bat barne, mozkinak lortzeko asmoz. Izan ere, zerbitzu asko pribatizatuak izan dira honezkero, eta ondorioa ezin okerragoa izan da”.

Europa hartu ohi da ongizate estatuen azken gotorlekutzat. Nola eragingo lioke TISAk?

Gogoeta ia ideologikoa eginez, kapitalek xurgatu nahi duten azken gotorlekuaz ari garela esan genezake. Estatuaren zorraz hainbeste hitz egiten den honetan, badirudi nazioarteko kapitalak, merkatuak esaten zaizen horiek, interes tipoen jaitziera baterako prestatzen ari direla beren burua, edo zorren zati bat ordaindua ez izateko. Zertan ari dira bien bitartean? Aktiboen pilaketan, zerbitzu publikoen zati handi bat berenganatzea barne, mozkinak lortzeko

asmoz. Prozesu hori areagotu ahala, ongizate estatuen azken arrastorenak egingo luke. Izan ere, zerbitzu asko pribatizatuak izan dira honezkero, eta ondorioa, bidenabar esateko, ezin okerragoa izan da.

Hain izan da txarra (tarifa igoerak, zerbitzua kaskartzea...), atzeranzko prozesuak ere ikusi baititugu: pribatizatua berriro publiko bihurtu.

Bai, baina TISAren helburuetako bat da pribatizazioek atzerakorik ez izatea. Horretarako, itunak ingelesez *rat-chet clause* esaten zaion mekanismoa [“karraka klausula” modura euskara-

tu genezake] edukiko du, alegia, araudi bat adostu eta gero ezin izango litzateke berriro erregulatzea zerbitzu hori. Behin betiko finkatze bat litzateke. Haatik, Europako Batzordeak dio klausula horrek ez diola eragingo zerbitzuaren nolakotasunari.

Eta akordioaren aurka ari zareten taldeek sinetsi egiten diozue?

Azken boladan, dokumenturen bat filtratzen den edo besterik gabe publiko egiten duten bakoitzean ikusten da aurrez esan dituzten gauzek ez dutela errealitatearekin zerikusirik. Aurreko batean Ignacio García-Bercerori, TTIPi buruzko negoziazioetan EBko ordezkariaren buruari, frackingaz galdetu zioten, eta erantzun zuen frackinga erabat kanpo geratuko zela itunetik; seguruenik luze gabe ikusiko ditugu prospekzioak eta abar. Batzordearen sinesgarritasuna kolokan dago.

Karraka klausulari dagokionez ere bai?

Hara, hauxe dio EBk TISAri buruz argitaratu duten gida-liburuxka batean: “Karraka klausulak ez dio eragingo aldeetako bakoitzak diskriminaziorik ezarri gabe erregulatze-ko duen gaitasunari. Estatuak eutsi egingo diote arau sozialak ezartzeko askatasunari, hala nola gutxieneko soldadari, segurtasunari, kalitateari edota ingurumenari dagozkionak, baldin eta arauok neurri berean betearazten bazaizkie bertako eta atzerriko zerbitzu emaileei, eta baldin eta zerbitzuak eskaini ditzaketan

TTIP itun transatlantikoaz hiru zertzelada

- **Erregulazio-lankidetzak:** “TTIPen giltzarrietako bat da. Organismo bat sortu nahi dute, AEBetako eta EBko araudiak homologatzeaz arduratuko dena. Gakoa da organismo horrek erabaki estrategikoak hartu ahal izango dituela: nazioarteko merkataritzari eragiten dion edozein legedi, onartua izan aurretik, haiek ikuskatuko lukete. Erakundeei dagokien erabakitzeko ahalmena teknikari talde baten esku ipini nahi dute. Etorkizunean, talde horrek bidea zabaldu diezaioke oposizioa saihestearren itunetik kanpo utzitako zenbait gai polemikori: frackinga, transgenikoak...”.

- **Estatu eta inbertsiogileen arteko auzietarako epategia (ISDS):** “Iritzi publikoan aurkako aholtsak eragin zituen lehen gaietakoa izan zen. Azkenean,

Europako Batzordeak kontsulta publikoa egin zuen internet bidez, oso kontsulta teknikoa, ulergaitza, eta hala ere, gure ekimenez, 150.000 erantzun inguru jaso zituzten. %97, ISDSren aurkakoak. Azkenik, Batzordeak erabaki du kontsultaren emaitzaz paso egin eta gaia aditu talde baten esku uztea. Ohiko adar jotzea”.

- **TTIPi buruzko azken erabakia:** “Eztabaida handia dago, ea TTIP hitzarmen mistoa den ala ez. Mistoa bada, EBko parlamentu nazional guztiek berretsi behar dute, eta litekeena da Greziak, esaterako, ez egitea. Frantziak eta Alemaniak ere, agidanek, uko egingo liokete TTIP sinatzeari ISDS auzitegia barne hartzen badu. Aldiz, ituna mistoa ez bada, nahikoa da Europako Legebiltzarrak onartzea”.

Ezkutukeriaz

“TISAREN NEGOZIAZIOAK oso sekretuak dira, TTIPenak baino are sekretuagoak, eta hori asko esatea da. Zerbait argitaratzen duen herrialde bakarra Suitza da, eta horri eta

zenbait filtraziori esker jakin dugu TISAz dakigun apurra. Klausula baten arabera, hartutako akordioak konfidentzialak izango dira lehen bost urteetan”.

enpresa kopuruari mugarik jar-tzen ez bazaio”. Testu horretan daude TISAren bi giltzarri nagusiak: modu berean tratatu behar dira atzerriko enpresak eta etxe-koak, eta ezin da ezarri merkatu-rako sarbidea inongo enpresari oztopa diezaiokeen inongo bal-dintzarik. Prozesuko bi klausula garrantzitsuenak dira, den-dena zabalik uzten dutenak.

Statu quo klausula bat ere aurrei-kusita dago TISAn. Zer da?

Hitzak adierazten duen horixe bera: egoera ez dadila aldatu. Alegia, zerbitzu enpresak jardue-n ari direneko baldintzak ezin aldatzea araudiaren bidez. Europaren posizioa ulertu behar da: gu gara zerbitzu esportatzai-le handienak. Esaterako, azken urteetan Eusko Jaurlaritzak eredu ekonomikoaz eduki dituen planei begiratuta ohar gaitezke zerbitzuetan oinarritu-tako ekonomia dutela gogoan. Beraz, mundua zabalago egin behar da, liberalizatu, kanpora joan ahal izateko. Gu geu baika-ra saltzaileak. Hori bai, pertso-nen zirkulazioari mugak ezarrita.

lazko abenduan, GUE/NGLk Bru-selan antolatutako jardunaldian, batek baino gehiagok aipatu zuen TTIPen negoziatzia motel doala, akordioa lortzea kostatzen ari zaiela alde biei. Beste horrenbes-te gertatzen ari da TISAn?

Ez, TISA azkarrago dabil, intere-sek bat egin dutelako, eta aurka-riok ez dugulako, oraindik, nego-ziazioan eragiteko mobilizazio gaitasun nahikorik. Eta informa-zio falta TTIPen kasuan baino handiagoa da. Arreta handiagoa eskaini beharko genioke TISAri, guztiz oharkabea negoziatzen

ari baitira; TTIPi leporatzen diogu ongizate estatuen honda-tzea ekarriko duela, baina segu-ruenik TISAk askoz eragin han-diagoa izango du arlo horretan.

Hondatze hori lehenagotik dator, ordea. Zerorrek Bruselan esanda-koaren arabera, gutxienez Europar Batasuneko herrialdeek Lisboako Ituna sinatu zutenetik, 2007an.

Hala da. Azken urteetako bilakae-rak burujabetza galarazi digula esaten da, eta oraingo itun hauek are gehiago galaraziko digutela. Hori agerikoa da, baina kontuan hartu behar dugu Lisboan galdu genuela burujabetza horren zati handi bat. Esaterako, merkataritza eta inbertsio itunak negoziatze-ko arduraduna Batzordea iza-teak subiranotasuna osten die estatuei. Beste horrenbeste esan liteke moneta politikaz: Europa-ko Banku Zentralak kudeatzen du orain, estatuetako bankuen kalterako. Lisboakoaren ondoren izenpetu zen Egonkortasun Itunaren bidez, estatuek Batzordearen esku zituzten politika ekono-mikoaren alorreko ia eskuduntza guztiak. Eta nor da Batzordea? Horra galdera nagusia. Europako Legebiltzarrak beto gaitasuna mantendu badu ere, erabaki garrantzitsuak Europako Batzor-deak eta Europako Kontseiluak hartzen dituzte. Eredu neolibera-la haiek sendotu dute. Eta Euro-par Batasuna gero eta gutxiago da Europa; itun handi hauei egiten ari zaien kritiketako bat da EBren ideiarekiko atzera egite nabarme-na dela, erabaki ahalmenaren fun-tsezko zati bat korporazio trans-nazionalen esku uzten ari baitzaizkie. Hain goratu izan den europartasun ideia agortzen ari dira hitzarmen handiok. ■

ikusi ikasi

2015
Txotxongiloak, Ipuin kontalariak, magia, antzerkia...
Bilboko Haur Kultur Zirkuitua | 2-8 urte
URTARRILA • OTSAILA • MARTXOA

2/ 16	ZIRKUN ZIRKO 18:00etan Zamakola eskolan
2/ 17	PANTZART TEATRO 18:00etan Begoñako udaltegian
2/ 18	ELVI 18:00etan Errekaldeko udaltegian
2/ 19	ROSA MARTINEZ-EN TXOTXONGILOAK 18:00etan Tiboli eskolan
2/ 21	KIKI ETA KOKO 11:00etan Deustuko Bidarte udaltegian
2/ 26	TOR MAGOA 18:00etan Bilborock aretoan
2/ 27	EIDABE ANTZERKIA 18:00etan Karmen aretoan
2/ 28	MONDA ETA LIRONDA 11:00etan Agirre Lehendakaria, 42
3/ 03	MADDI ETA ANTON 18:00etan Begoñako udaltegian
3/ 04	GALDER PEREZ 18:00etan Errekaldeko udaltegian
3/ 05	MONDA ETA LIRONDA 18:00etan Bilborock aretoan
3/ 06	POTXIN ETA PATXIN 18:00etan Karmen aretoan
3/ 07	ZIRTAKA ANTZERKI TALDEA 11:00etan Deustuko Bidarte udaltegian
3/ 12	IMANOL ITUINO MAGOA 18:00etan Bilborock aretoan
3/ 13	KIDAM MAGOA 18:00etan Karmen aretoan
3/ 20	ZIRIKA ZIRKUS 18:00etan Karmen aretoan
3/ 26	IL DUO CANNELONI 18:00etan Bilborock aretoan

SUKALDARITZA, MOZORROGINTZA,
MUSIKOTERAPIA ETA SORMENEZKO
ERAIKUNTZA TAILERREN ESKAINTZA ETA IZEN
EMATEA WWW.IKUSIETAIKASI.NET GUNEAN



Zure seme-alabekin euskaraz
disfrutatzeko baliabideak sarean.
Ikusi eta ikasi bloga!
www.ikusietaikasi.net



B
Bilbao
UDALA
AYUNTAMIENTO

**euskaltzaleen
topagunea**

Euskara poloniar erara

Etxepare Euskal Institutuak munduko 34 unibertsitatetan ditu irakurleak (euskara irakasleak), horietatik bi Polonian; bata Varsoviako Unibertsitatean eta bestea Adam Mickiewicz Poznango Unibertsitatean. Bertako irakurleekin eta ikasleekin solasean aritu gara, batzuekin euskaraz eta beste batzuekin ingelesez.

| MALEN ALDALUR |

EUROPA ERDIALDEAN kokatuta dago Polonia. Baltiko itsasoak, Lituaniak, Bielorrusiak, Ukrainak, Txekiar Errepublikak, Eslovakiak eta Alemaniak inguratzen dute. Hizkuntza eta kulturaz baranotua bizi da, baina bada begiak ingurutik altxa eta Euskal Herrira begira jarri denik.

Maialen Sobrino eta Aitor Arruza euskara irakasten ari dira Poznaren eta Varsovian, hurrenez hurren. Bi irakurleekin eta bakoitzaren bi ikasleekin hitz egin dugu. Daria Salamonowska eta Tomasz Lechowski, Varsoviako Unibertsitateko ikasleak dira. Bi urte inguru daramatzate euskara eta euskal kultura ikasgaia ematen Arruzaren gidaritzapean.

Salamonowskak, “Euskaraz bizi nahi dut” kamiseta beltza darama soinean eta lauburu bat paparretik zintzilik. Lechowskik ez darama inolako euskal ikur edo kamisetarik, baina euskara ikasten bi urte soilik eramateko txukun moldatzen da. Elkarrizketa guztia egin dugu horrela, distantziak eta interneteko konexioek sortzen dituzten interferentzia eta ezin ulertuak tarteko.

Varsoviatik 309 kilometrotara dago Poznan. Han ere bada mihia euskaraz mugitzen duenik, nahiz eta elkarrizketa egiteko orduan nahiago izan duten ingelesa erabili. Urrian hasi zen Sobrino irakurle gisa Polonian, une honetan hamar bat ikasleri ematen dio euskara eta euskal kultura ikasgaia, ARGIAk horietako birekin hitz egiteko aukera izan du: Iga Jasiewicz eta Zofia Byczyk.



ETXEPARE INSTITUTUA

Poznango ikasleak euskal zinemari eta literaturari buruzko ekitaldi batean, Harkaitz Cano lagun. 2013ko argazkia da.

Euskara ahora

Ikasleen perfila anitza da: hizkuntza ikasketak egin dituzte batzuek, familia hemengoa dute besteek, kuriositateak bultzatuta ikasi dute hirugarren batzuek. Batek jakin zer den benetan erakarri dituen, baina kontua da euskarara kateatu direla.

Salamonowskak hispaniar filologia ikasi zuen, eta horrek bultzatu zuen euskara eta euskal kultura ikasgaian izena ematera. “Hispaniar filologiaren baitan gehien erakarri nauen gauzetako bat izan da euskara eta euskal kultura”, esan du.

Lechowskik berriz, burugogorkeriatik edo: “Denek euskara oso berezia zela esaten zidaten eta ikasteko zaila edo ia ezinezkoa. Nik aurkakoa frogatu nahi nuen”, baita fro-

gatu ere, aise moldatzen da gazte poloniarra gure hizkuntzan. Arruza haren irakasleak dio, horretan baduela “euskaldun itxura”.

Biek ezagutzen dute Euskal Herria eta laketa zaie. Laboaren kantuak dioten antzera “maite dituzte maite gure bazterrak”.

Lehenengoz Etxepare Institutuak eskainitako bekekin etorri ziren barnetegira –Lezora eta Portugaletara– euskaraz dantzatzera, jostatzera eta jardutera. Baina beraien kabuz ere bisitatu dute Euskal Herria, eta Laboaren kanta berak dioten bezala baita bertako bazter miresgarriak ere. Lechowskik esaterako, 2014an hilabete pasa du bertan, Donostia, Tolosa, Bilbo eta beste zenbait txoko ezagutzen.

Dena den, Donostiako Alde Zaharreko pintxoak, Guggenheimeko eraikin ultra modernoa, eta Tolosako babarrunak gustatzen baldin bazaizkie ere, ez dira horiek euskara ikasteko arrazoiak, edo ez horiek bakarrik behintzat.

Nor edo nork pentsatuko du Polonian euskaraz jakiteak gutxirako balio dezakeela, baina Salamonowskak dio etekin “ederra” ateratzea diola berak. Euskal kulturaren zuen interesa baliatuta bere diplomatura amaierako lana sagardoari eta txalapartari buruzkoa egin du eta “arrakasta itzelarekin” gainera. “Lana egiterako orduan asko lagundu zidan euskaraz zerbait jakiteak eta gehiago ikasteko interesa ere piztu zidan”, esan du ikasle poloniarrek. Ttaku hotsa eta sagardoaren mikatza ere iritsi dira Poloniako zirrikituraren batera.

“Denek euskara oso berezia zela esaten zidaten eta ikasteko zaila edo ia ezinezkoa. Nik aurkakoa frogatu nahi nuen”

Tomasz Lechowski,
ikaslea

Hiriburutik Poznanera salto egin eta Sobrinok dio bere ikasle gehienak hizkuntzalaritza ikasleak direla. Horietako bat da Jasiewicz. Berak, hizkuntzalaritza ikasi du eta hortik egin du jauzi euskara eta euskal kultura ikastera. “Ikasketengatik hasi nintzen euskara ikasten baina egia esan hizkuntza aparta iruditzen zait”, esan du Jasiewicz.

Dena den, ez dira hizkuntzalariak soilik euskara ikastera animatzen direnak. Sobrinok dio askorentzat euskal kultura oso erakargarria dela, “misterio” kontuengatik. Nondik

Goian, ezkerretik eskuinera: Zofia Byczyk, Iga Jasiewicz eta Maialen Sobrino. Behean, Daria Salamonowska Varsoviako ikaslea, Poloniara hemengo dantzak erakustera joandako dantza talde batekin.



datorren ez jakiteak halako “exotikotasun” bat sortzen dio hizkuntzari: “Etxetik hurbil, Europan, kultura zahar, aberats eta ezezaguna izateak nolabaiteko irrika sortzen die”. Badu beraz euskarak magiarik, sorginkeriak harrapatuta dabilta estudiantek.

Poznango bi ikasleetatik bakarra izan da Euskal Herrian. Byczyk Etxepare Euskal Institutuak urtero eskaintzen dituen beketako batekin egon zen Zornotzako barnetegian bi astetarako. Jasiewicz berriz ez du oraino honantz etortzeko betarik izan.

Zer dakite guri buruz?

Akaso mendian baserritarrez jantzi bizi garelako pentsatuko du bakarren batek, irrintzi bidez komunikatuz. Egongo da Euskal Herria entzun eta Anne Igartiburu eta Xabi Alonso soilik bururatuko zaizkionik, edo Bilbo eta Guggenheim kokatzeko gai izango ez denik. Baina ARGIA elkarrizketatutako ikasleek apenas zuten aurreiritzirik Euskal Herriaren eta euskal herritarren gainean.

Jasiewicz dio oso gutxi entzun izan duela Euskal Herriari buruz: “Banekien Euskal Herria deituriko zerbait existitzen zela eta ETARI buruz ere banuen zer edo zer entzuna eskolan eta hedabideetan, baina hortik aurrera ezer gutxi”. Gainera



koak ere antzera. Lechowskek, esaterako, dio orain ari dela bere lehenengo iritziak eraikitzen, aurrez deus ez baitzekien.

Beraz, askotan irakasleek zerotik abiatu behar dute ikasketa prozesua, horrek badu zerbait erakargarritik Arruzarentzat: “Poztasun handia ematen dizu norbaiti zer garen erakusteko”. Varsoviako irakurleak dio ikaragarria dela nola ikasten duten euskaraz hain denbora gutxian, erdi txantxetan, eta bera polonierarekin “nahi eta ezinean” dabilela aitortu du.

Euskara eta euskal kultura bat izango balira bezala bizi dituzte, bata bestea gabe “hankamotz” leudekeela uste du Sobrinok eta bat datoz haren ikasleak ere.

Dena den, batzuek badituzte lehentasunak, Lechowskek esaterako berean jarraitzen du: “Nik nahia dut euskara, batez ere, zailagoa delako”.

Euskarak badu bere lekua munduan, zatitxo bat Polonian. ■

Babeslea: Bilboko Udala



Diru publikoaren gestio txarra eta ustelkeria Araban

Arabako erakunde publikoei lotuta atzeman diren balizko ustelkeria kasuak eta gestio desegokiak bildu ditu Adi elkarteak bere webgunean. Adibide nagusiak ekarri ditugu hona.

| MIKEL GARCIA IDIAKEZ |



• **Iradier Arena.** Ekitaldiak egiteko Iradier Arena estadioa alokatzerakoan hainbat promotoreri Gasteizko Udalak egindako tarifa-beherapenetan irregulartasunak, pribilegio tratua eta delitu zantzuak antzeman ditu fiskaltzak, bai Patxi Lazcoz (PSOE) alkate zenean, baita Javier Marotoren (PP) garaian ere.

• **21 Zabalgunea.** Gasteizko garapen urbanistikoaz arduratu den udal erakunde publikoa da 21 Zabalgunea. Erakunde honen bitartez, 2006an Alfonso Alonsoren (PP) udal gobernuak egindako erosketa bat ari da ikertzen Espainiako Kontu Auzitegia: lurrak erosi zituen 21 milioi euroren truke, alegia 45 euro ordainduta metro koadro

bakoitzeko, batez besteko kostua metro koadroko 2-5 eurokoa zenean eta lur horiek Hiria Plan Orokorra aurreikusten ez zituenean. Gertakaria preskribatua dagoela egotzita, ikerketa oztopatzen saiatu da Maroto. Bestalde, PPren legegintzaldian burutu gabeko hogeitabat proiektutarako 51 milioi atera izana salatu du Patxi Lazcozek.

• **San Antonio kaleko lokalak.** Alfonso Alonso Gasteizko alkate eta Javier Maroto Ogasun zinegotzia zirela (PP), San Antonio kalean Gonzalo Antón enpresariarekin sinaturiko kontratu susmagarriak –Antónnek lokalengatik ordaindutakoaren bikoitza baino gehiago ordainduko ziotela hitzartu zuen Udalak– 7 milioi euroko zuloa utzi du.

• **De Miguel kasua.** 2003-2007 legeintzaldian Zanbrana herrian Maria Justina Angulo (EAJ) alkate zela, ezerezean geratu ziren birkalifikatze urbanistikoak adostu zituzten eta prozesuan kobratutako ustezko komisio ilegalak 15,8 milioi eurora iritsi daitezkeela dio prentsak. Ustelkeriaren kontrako EAEko sumariarik handiena da, 30 inputatu ingururekin, tartean Zanbranako alkatea zena eta Alfredo de Miguel azpijokoaren ustezko burua (EAJ).

De Miguel kasua, Zanbrana herriko birkalifikatze urbanistikoak eta EAJ jomuga dituen, ustelkeriaren kontrako EAEko sumariarik handiena da, 30 inputatu ingururekin

• **Ihurreko depositua.** Gasteizko Ihurre kontzejuko ekaitz biltegiak 8 milioi euroko inbertsio publikoa izan zuen, Alonso-ren legeintzaldiak bultzatuta. Espainiako Sare Elektrikoak ilegala zela ohartarazi zuen arren –goi-tentsioko linea baten azpian dagoelako– eraikitzen jarraitu zuten, jaramonik egin gabe. Deposituari ez zaio inoiz erabilerarik eman.

• **Epsilon.** F-1 taldea sortzeko proiektuak, aurrera atera ez denak, 46 milioi euroko galerak

utzi ditu funts publikoetan. Arduraduna, Joan Villadelprat, 900.000 euroko isuna ordaintzera eta hiru urteko inhabilitaziora zigortu dute.

• **Hiriko.** Automobil elektrikoak egiteko proiektuak, gauzatu ez denak, 14,7 milioi euro xahutu ditu laguntza publikoetan (proiektuaren aurkezpenak bakarrik 166.000 euroko kostua izan zuen). Kasua ikertzen ari dira.

• **AP-1.** AP-1 autopista mantentzeko Arabako Aldundiak –EAJ aginduan zela– Bidelan enpresarekin sinaturiko kontratuan prebrikazioa eta funts publikoen bidegabeko erabilera salatu ditu EH Bilduk eta salaketa tramitera onartu du Arabako Fiskaltzak. Lan beragatik bi aldiz ordaintzea eta ondorioz 3 milioi euroko gailkostua bere gain hartzea ekarri du kontratuak, nahiz eta orduko txosten tekniko eta juridikoek ohartarazi zuten kontratua kaltegarria zela Aldundiarentzat. Afera azaleratu ostean, kontratuari uko egin berri dio Bidelan enpresak.

• **Krea kultur gunea.** 18 milioi euroko inbertsio publikoaren emaitza da Krea kultura garaikidearen sorkuntza eta zabalkuntzarako gunea, Gasteizen. Baina eraikin eta ondare publiko honetan unibertsitate amerikar pribatu bat ezartzeko saiakera abiatu dute.

• **Arabako Lanak.** Kontratu publikoak nahieran eta zuzenean esleitzea leporatu dio PP buru duen Arabako Foru Aldundiari –honen baitako Arabako Lanak sozietate publikoari– Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialak, eta frogatzeko, diru kontuen auditoria egin dezala eskatu dio.

• **Swap-ak.** 2006. urtetik 8,8 milioi euro galdu ditu Foru Aldundiak, obra publikoak finantzatzeko kontratatutako sei *swap* edo arriskudun finantza produktugatik. Diru gehiago ez galtzeko, *swap*-ak birnegozia ditzala eskatu du oposizioak. ■



ARTEDRAMA
KULTUR LEIOA
Jose Ramon Aketxe Plaza, 11
48940 Leioa (Bizkaia)
www.kulturleioa.com

Leioa 2015

Lau egunez euskal sorkuntzaz
gozatzeko parada

OTSAILAK 26

"Arren ganbara eta emeen sotoa"
ATX Teatroa

ANTZERKIA · 20:30 h / 8 €

OTSAILAK 27

"Amodioaren ziega"
Lauka Teatroa

ANTZERKIA (ESTREINALDIA) · 20:30 h / 8 €

OTSAILAK 28

"Zer duzu Amy?"
Oh My God!

ANTZERKIA · 20:00 h / 6 €

"Gosariak"

Gose

MUSIKA · 22:00 h / 10 €

MARTXOAK 1

"Jokoz kanpo"

Borobil Teatroa

ANTZERKIA (AURRESTREINALDIA)

19:00 h / 10 €

BONOA: 30 €

Hilak 28, bonoa: 12 €

Arrazoirik badago Jaizkibel zurrupatzeko?

Jaizkibelgo lurpeko akuiferoak ustiatzeko azpiegitura jadanik eraikita dago. Ekologistek diote ez dela horren beharrik, eta salatu dute Txingudiko mankomunitateak “lehortek asmatu” dituela plubiometriak faltsutuz eta ubideak txostenetatik desagerraraziz.

| URKO APAOLAZA AVILA |
Argazkiak: Dani Blanco

JAIZKIBELGO iparraldeko hegian 75 eta 120 metro arteko sakonera duten sei putzu eraiki zituzten Txingudi Zerbitzuak (Txinzer) mankomunitateak eta Gipuzkoako Aldundiak 2011n, mendi hartako lurpeko ura zurrupatzeko. Halaber, 14 kilometroko hoditeria sartu zuten ura Bidasoaldeko herrietara garraiatzeko, elektrizitate sarea muntatu, energia transformazio zentroak eta biltegiak eraiki... Guztira 8 milioi euroko kostua. Erakunde publiko horien esanetan, lehorte handi baten aurrean –1990ekoa bezalakoa– Bidasoaldeko ur hornidura sistema ez legoke presaturik herritarren eskaerari aurre egiteko, eta hori bermatu nahi zuten azpiegitura berriarekin.

Talde ekologistek gogor kritikatu dute obra. Jaizkibel mendia Natura 2000 Sarean babesturik dago, besteak beste, eta balio handiko ezaugarri naturalak gordetzen ditu, errekaetarik hasi eta iratzeko paleotropikaletaraino. Lur azpiko ura zurrupatzeko arriskuan jarriko luke hori guztia, haien esanetan.

Endara edo San Anton urtegiaren maila %80tik jaisten denean Txinzerrek Jaizkibelgo putzuak erabili ditzake. Putzu horiek Irun eta Hondarribiko ur eskaeraren %60 asetzeko adina gaitasun omen daukate, baina legearen arabera ezin da ur baliabideen %25 baino gehiago ponpatu. Hain justu, ekologistek salatu dute Eusko Jaurlaritzaren URA agentziak emandako baimenak kopuru hori

orotara gainditu egiten duela, ez baita kontuan hartzen putzuetatik ez ezik, errekaetarik ere ura jasotzeko dagoen emakida.

EHuko Hidrogeologia eta Ingurumen sailak eta Hydrolur elkarteak egindako ikerketa baten arabera –*Munibe* aldizkari zientifikoan argitaratua 2014ko azaroan–, Jaizkibelgo sabelak elkarrengandik bananduta dauden hainbat akuifero dauzka. Ikerketak dio egindako ponpaketa-saioak oso laburrak izan direla ondorioztatzeko kalterik eragingo ote duten epe luzeagoan.

Bidasoaldean ur eskaera 6,5 Hm³-koa da, Endarako errekaen arroan aldiz 17,7 Hm³ dute eskura, Jaizkibelgo putzuetara jo behar izan gabe

Ura harearizko geruza porotsuetan gordetzen da batez ere, eta harriari erauzten zaio: “Motzean esateko, *spontex* moduko bat da”, dio Angel Alkain Jaizkibel Mendia Babes Dezagun (JMBD) taldeko kideak. Talde horrek urteak daramatza Bidasoaldeko ur hornidura sistema ikeritzen. Beren esanetan, ingurumenari egingo dion kalteaz gain, bada beste arrazoi garrantzitsu bat Jaizkibelgo putzuak ez erabiltzeko: ez dago ur beharrik.

Irundar eta hondarribiarrek etxeetan eta enpresetan fakturatutako ur kopuruaren urteko batez bestekoa ez da 6 hektometro kubotik igaro azken bi hamarkadetan; kontsumoa gainera, beherantz doa urte-tik urtera hamarkadatan –2013an 4,4 Hm³ baino ez ziren izan–. Ubideetatik ihes egin dezakeena kontuan edukita JMBDeko kideek kalkulatu dute ur eskaera 6,5 Hm³ ingurukoa dela. Bada, Bidasoaldeko ur erreserba nagusia den Endara errekaen arroan hori baino ia hiru aldiz ur gehiago dago eskura.

Endarako ura nahasita dator

Nemesio Echaniz bideetako ingeniariak Endara errekaen San Anton urtegia diseinatu zuenean, uste zuen Irunek 1993an 126.000 biztanle izango zituela eta herritar bakoitzak eguneko 350 litro beharko zuela. Egun, 116 litroa ez da iristen kontsumoa eta Irunek uste zena biztanleriaren erdia dauka. Urtegia Nafarroako lurretan dago, Lesakan, eta 5,5 Hm³ ur biltzeko gaitasuna du. Osotara baina, urtegiaren arroak 10,5 kilometro koadro ditu eta hortik 17,7 Hm³ ur ateratzen dira urtean. Izan ere, plubiometria maila oso altua da bertakoa, Euskal Herriko altuenetakoa: 2.400 mm-tik gora euri egin dezake zonalde horretan.

Baina Endarako plubiometria neurketa ofizialek mesfidantza handia sortu dute. JMBDe salatu du Txinzerrek 2007 eta 2012 arteko



Jaizkibelgo putzuen azpiegiturak 8 milioi euroko kostua izan du.

datuak faltsutu zituela, euri gutxiago egin zuela azaltzeko. Hala, mankomunitateak bere memorietan emandako datuek ez dute bat egiten Nafarroako Gobernuak dituenarekin. Adibidez, 2007an metro koadroko 2.492 litro ur erregistratu zituen Meteo Navarrak, Txinzerrek aldiz 1.916 litro egin zituela jarri zuen, hau da, ia 600 gutxiago; 2008an 700 litrotik gorakoa da aldea, eta hurrengo urteetan ere diferentzia antzekoak aurki daitezke; 2011n esaterako metro koadroko 1.000 litro ahaztu zitzaizkion apuntatzea Txinzerri. Ostera, 2013ko memorian Txinzerrek berak datuak zuzendu eta egiazko kopuruak jarri zituen beste azalpenik eman gabe.

Zer dela eta gorabehera horiek plubiometriarekin? Txinzerrek bere webgunean hala du idatzita: “Etorkizunean lehortea ustez latzagoak izango direnez eta eskualdeko biztanleen kopuruak gora egiteko joera duenez, behar-beharrezkoa da Jaizkibel aldeko zorupeko uren ustiakuntza emendatzea”. JMBDren ustez mankomunitateak sinetsarazi nahi izan du Endara arroan ur gutxiago dagoela Jaizkibelgo putzuen eraikuntza justifikatzeko, “lehortea asmatu nahi dituzte” diosku Alkainek irmo. Areago, txostenetan azpiegiturak ezkatatu dituztela diote talde ekologistakoek, helburu berarekin.

AQUARIUM

Carlos Blasco de Imaz Plaza, 1
20003 Donostia (Gipuzkoa)

Tel: 943 44 00 99

aquariumss@aquariumss.com
www.aquariumss.com



Putzuek Irun eta Hondarribiko ur eskaeraren %60 asetzeko adina gaitasun omen dute.

Zer ari da gertatzen Hirugurutzetako zentrolean?

Domiko urtegi txikia bailaran gorago joanda aurki liteke eta Endarakoa eraiki aurretik bertatik edaten zuten Irungo herritarrek. Urtegitik ura desbideratzen da kanal baten barrena Hirugurutzeta izeneko zentral hidroelektrikora eta hortik zuzenean Bidasoara isurtzen da, beste aprobetxamendurik gabe. Bada, Txinzerrek baliabide horren berririk ez zuen eman 2006an Jaizkibelgo putzuen beharra arrazoitzeko txostenean.

2013ko ekainean, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen sailburu Ana Oregik eta URA agentziako zuzendari Iñigo Ansolak azalpenak eman zituzten Eusko Legebiltzarrean, EH Bilduko Dani Maezturen eskariz. Ansolaren esanetan Domiko urtegiak 0,36 Hm³-ko gaitasuna dauka eta horrek ez du “bermatzen” ur hornidura. Hau da, ur kopuru txikiak ari garela kanal horretatik isurtzen denaz hitz egitean.

Ez daude ados JMBDko kideak, honela azaldu du Jose Ramon Enparanek: “Domiko arketa moduko bat da, ez da soilik zenbat pilatzen den urtegiaren barruan, zenbat ur bideratzeko gai den baizik”. Datu ofizialen arabera, 2013. urtean 6,2 Hm³ ur turbinatu zituen zentralak; Bidasoaldeko herritarren kontsumorako aski litzaiteke kopuru hori.

Ekologisten ustez Hirugurutzetako zentrolean gertatzen ari dena klabea da, kasu honetan ere Txinzerrek helarazitako datuak arras ezberdinak baitira esku artean dituztenekin alderatuta. Esaterako, Txinzerrek dio

2008. urtean 1,8 milioi kWh argindar sortu zuela zentralak, baina Ikaur ingeniariaritzaren enpresak Gipuzkoako Aldundiarentzat egindako ikerketa batean publikatu zuenez 3,9 milioi kWh produzitu zen urte hartan, halako bi baino gehiago alegia. Konpainia elektrikoaren itzala ikusten dute JMBDkoek atzean eta behin baino gehiagotan eskatu dute Espainiako Energiaren Nazio Batzordeak zentral horri dagozkion datu errealek eman ditzala.

Ekologisten ustez, Hirugurutzetako zentrolean gertatzen ari dena klabea da, Txinzerrek helarazitako datuak arras ezberdinak baitira esku artean dituztenekin alderatuta

Salaketa horiek argitzeko ARGIA harremanetan jarri da Txinzerreko arduradunekin, baina Leire Zubitur mankomunitateko kudeatzaileak ez die astekariaren galderei erantzun nahi izan. Zubitur gerentzian hasi berria da, bere aurretik urte askoan ibilitako Miguel Angel Muñagorrikerretre hartu ondoren. Txinzerreko administrazio kontseilua, halaber, PSE eta EAJren esku dauden Irun eta Hondarribiko udal hautetsiek osatzen dute.

Hain justu EAJko legebiltzarkide den Maria Eugenia Arrizabalagak “konspiranoia” egotzi zien JMBDko

kideei Eusko Legebiltzarrean iaz egin zuten agerraldian. Arrizabalagaren esanetan Jaizkibelgo putzuak egiteko arrazoi “bakarra” lehorre kasuetan biztanleriak ur hornidura bermatua edukitzea da: “Ezagutu genuen 90ean zer lehorre jasan genuen. Ni akordatzzen naiz Zumaiara nola etortzen ziren egunero-egunero kamioiak zisternetan ura ekarritz”.

Alkainen iritzitan 1989-90eko egoera eta oraingoa ez dira konparagarriak. Urte haietan San Anton urtegiaren eraikuntza bukatuta zegoen “baina hodia oraindik jarri gabe zegoen, orduko argazkietan ere ikus daiteke hori”, dio hondarribiarrek. Enparanentzat ere lehorrearen kontuak ez du justifikaziorik, urterik lehorrenetan euri kopurua ez delako 1.600 mm-tik jaitsi, nahikoa ur eskaera asetzeko. Bestalde, larrialdirik izanez gero Jaizkibelgo errekaetoetara ere jo dezakete, “beti egin izan den moduan”, dio Alkainek; bertotik 4,4 Hm³ ateratzeko baimena du Txinzerrek.

Auzitegiek zigortuta

Ekologistek behin baino gehiagotan jo dute auzibideetara mankomunitatearen kudeaketa txarra dela eta. 2013ko azaroan Eguzzik salaketa jarri zuen Endara erreka ur gutxi zeramalak. ARGIAk argitaratu zuen moduan, Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak 3.000 euroko isuna jarri zion Txinzerri, ura Domikoko kanalera desbideratu eta Endarak behar duen emari ekologikoa ez errespetatzeagatik.

Ingurumen-inpaktuaren txostena ere epaitegietan ibili dute. Jaizkibelgo putzuak egiteko proiektuaren ebaluazio “sinplifikatua” onartu zuen Eusko Jaurlaritzak eta ekologisten ustez prozedura zehatzagoa behar luke. Ingurumen fiskaltzak ordea atzera bota du eskaria.

Nolanahi ere, JMBDko kideek babes gehiago lortu nahi dute Bidasoaldeko uraren kudeaketaz dituzten zalantzak argitu eta Jaizkibel mendiko akuiferoak ukitu ez ditzaten. Esaterako, Gipuzkoako Aldundiarengana joko dute, uste baitute erakunde honek baduela erantzukizunik. ■

Udalerri euskaldunek atzera, erdaldunek aurrera

OGIAREN MUTUR BATEAN udalerri euskaldunenak eta beste muturrean erdaldunenak. Sagua bi koskorak jaten ari da.

Iñaki Iurrebasok UEMAko udalerrien 30 urteko bilakaera soziolinguistikoa azaldu berri du *Lurraldea eta Hizkuntza, Tresnak eta Erronkak II* jardunaldietan. Udalerrietako euskara gaitasuna, lehen hizkuntza eta etxeko erabilera datuak xehatu ditu. Euskarak atzera egin du, hiru aldagaiak kontuan hartzen baditugu, eta batik bat azken hamar urteotan. Iurrebasoren hitzak erabiliz, “udalerri euskaldunak, gaur egun ez dira hain euskaldunak, erdararen tokia ez da marjinala”.

Beste muturra ere higitzen doa, udalerri erdaldunenetan gero eta euskara hiztun proportzio altuagoa dago.

Beraz, udalerri erdaldunetan euskara indarra hartzen ari da, eta euskaldunetan aldiz, galtzen.

Bi ogi koskorrek desagertzeko bidea hartua dute, hau da, konbergentziarako joera nabaria da. Koskor baten galera pozgarria da, gune erdaldunena euskalduntzen ari da. Alabaina, horren ordainetan ogiaren beste koskorra galdu beste erremediorik ez ote dago? Biztanle kopuruari erreparatzen badiogu, udalerri erdaldunek osatzen duten multzoan bizi da jende gehien. Udalerri euskaldunetako herritar kopurua apalagoa da. Aldiz, udalerri euskaldunak, arnasgunetzat hartuak dira, euskararen gotorleku, bihotz. Gune horien galera kualitatiboki neurtzekoa ere bada.

Ogiaren metaforak EAErako bezala Nafarroarako balio du. Argitaratu berri den mapa soziolinguistikoaren arabera, han ere bi koskorak ahitzen ari dira. Gakoetako bat mutur horietako baten galera-abiada apaltzea litzateke.

Eneko Barberenak Nafarroako inkesta soziolinguistikoaren emaitzez Barberenea blogean esanak:

“Gaur egun amaitua dugu konpartimentazio hau, dena da bi hizkuntzena nola-bait esatearren, baina esaterako guk justizian aurreratu duguna baino askoz gehiago aurreratu du gaztelerak etxean edota lagunartean. Hau da sehaskaren galera, Iruñean aurreratu duguna baino gehiago galdu dugu Nafarroa iparraldeko herrietan datuei dagokionean.

(...) Hitzun naturalek hizkuntza ‘jatortasunari’ egiten dioten ekarpena gutxietsi gabe, bada hor eztabaidarako gairik, gaur Mikel Aramendik Euskadi Irratian esan duen bezala euskararen norgehiagoka ez da landa eremuko, hiri eremuko baizik.

Euskaldun kontziente eta motibatuak dira borroka horren bihotz eta motore XXI. mendean non inor ez den euskal elebakar. Horregatik gure lana euskal hitzunik ibilbide kulturala ere egin dezaten bermatzea da eta bereziki, hizkuntzara hurbildu direnei ibilbide naturala egiteko abaguneak eskaintzea”.

EKONOMIAREN TALAIA • TERMOMETROA

Amiantoa, hiltzaile isil hori

Amiantoa, asbestoa ere deituriko mineral kantzerigenoa, enpresa eta etxebizitzetan erabili izan da –oraindik zenbait tokitan erabiltzen da– eta hiltzaile isila izaten ari da, batez ere hura arnastuz biriketako minbizia sortzen duelako. Osasunaren Mundu Erakundearen arabera, urtean 107.000 pertsona hiltzen dira amiantoa arnasteagatik. 125 milioi langile inguruk mineral hiltzaile horrek kaltetzeko arriskua dute. 2030 urtera arte aurreikusten da 300.000 pertsona hilko direla Europar Batasunean.

Euskal Herria ez dago isolaturik. Amiantoa erabili izan den 175 enpresa daude. 2008tik Hego Euskal Herrian erregistraturiko datuak ditugu: 150 langile-ohi hil dira dagoeneko. Aurtengo urtarilean bost lagun hil dira: CAF enpresan lan egindako bi eta Astilleros Españoles, Industrias Químicas del Uruma eta Kaefer Bizkaian lan egindako bana. CAFeko langileek ordubeteko geldialdia egin zuten joan den astean, hildako lankideak oroitzeko. Beasaingo lantegian jadanik 25 pertsona hil dira eta Irun eta Zarago-

zako lantegietakoak batuz 60 dira amiantoak CAFen hildako langile ohiak.

Euskadiko Amiantoaren Biktimen Elkartearen eta sindikatuen lanari esker, ahanzturatik erreskatatu dituzte biktima horiek. Euren senideek zailtasun handiak dituzte askotan Osakidetzak ez duelako onartzen laneko gaixotasuna denik. Eta enpresatan ere euren eskubidea diren kalte-ordainak jasotzeko oztopo ugari izaten dituzte. Auzitegiatara jo behar izaten dute biktimok; tramitazio geldoa eta efikaziarik gabekoa. Hori saihestu zatekeen administrazioak onartuko balu konpentsazio-funts bat osatzea, Europako beste herrialde batzuetan egiten den bezala. Bankuak kiebratik erreskatatzeko arazorik ez badago –60.000 milioi euro eman dizkiote Bankiari–, zergatik ez dira amiantoak hildako langileak “erreskatatzen” euren senideei indemnizazioak emanez?

Juan Mari Arregi

Europako patronalak lepoa moztu nahi dio Ekonomia Zirkularrari

Jean-Claude Juncker Europako Batzordearen lehendakari izendatu eta berehala pikutara bidali dute Ekonomia Ziklarrerako araudi berria. Gero jakin da atzetik bultzaka aritu direla BusinessEurope lobbyak biltzen dituen korporazio handietako ugazabak. Kolpe berean kixkali dituzte genero berdintasuna sustatzeko zenbait arau ere.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

JANEZ POTOCNIK KOMISARIOAREN izena nabarmen markaturik geratu-ko da Europako Batzordearen historian: izan zen behin Esloveniako komisario bat urte luze-ko lanez eta pazientzia handiz landu zuena Ekonomia Zirkularrerako europar araudi berria... baina aski izan zen hauteskunde-oren ondoren komisario berria izendatzea Potocniken lan guztia paper ahul bat bezala erre-zteko.

Europar ingurumen gaiez eta iraunkortasunaz okupatzen diren talde askok etsipenez ikusi dute Jean-Claude Juncker lehendakaritza hartze hutsarekin nola hasi den lurperatzen azken urteotako lorpenak. Hondakinak modan daudenez, Euskal Herrira gehienbat iritsi dira Ekonomia Zirkularrerako lege multzoari buruzkoak. Baina ez dira garrantzia txikiagokoak genero berdintasuna sustatu, aireko kutsadura murriztu edo finantzen mugimendua gardenagotzeko abian ziren neurrien suntsiketa. Ondorioak las-ter hasiko dira ikusten.

Europar Batzordearen lehendakariorde Frans Timmermansek burokratek hain maitea duten est-loan esan zuen parlamentarien batzordean Ekonomia Zirkularraren araudia osorik deuseztu zutela “aurten bertan, 2015ean, anbizio handiagoko plan berri bat egitea-

rreren”. Anbizio handiagokoa ala patronalaren eskarien neurrirago-koa?

Potocnikek hilabete luzez landu-tako negoziaketen fruitu sortu zen Ekonomia Zirkularraren araudia, zeinak helburutzat zeukan Europak hain urri dituen lehengaien bizia luzatzea, hondakinak baliabide bihurtzea berrerabilpena, konpon-keta eta birziklatzea sustatuz, alda-keta estruktural honek Europar Batasunari 600.000 milioi euroko balioa ekarriko ziolakoan, Barne Produktu Gordinaren %30eko hobetzea eta bi milioi lanpostu berrireren sorrera.

Baina ortodoxia kapitalistatik ateratzen ez diren helburuok, antza, ez zituen gogo onez ikusi kontinen-teko ugazaba handiak biltzen dituen BusinessEurope lobbyak. Arazoa zegoen planak aipatzen dituen neu-rrri zehatzetan, tartean:

- Hondakinen birziklatzea %70era iristea 2030rako.
- Bilgarrien birziklatzea %80ra iris-tea 2030erako (papera %90era, plastikoak %60ra, egurra %80ra, metal eta bidrioak %90era).
- 2025erako bukatzea birziklagai den ororen lurperatzea, ez bada hondakin arriskutsuentzako bilte-gietan eta gehienez %25.
- 2025erako hondakinen sorrera %30ean murriztea.

Europako Legebiltzarrak *Flickren* eskegitako argazkian, Jean-Claude Juncker (ezkerretan) Europako Batzordearen lehendakaria eta Frans Timmermans lehendakariordea, batzordeko kideak aurkezteko 2014ko urria-ren 22an egindako saioan. Hamabost egun baino lehen zabaldu zen aurreko legealdian luze negoziatutako bost lege multzo garran-tzitsu bertan behera utzi behar zituztela, tar-tean Ekonomia Zirkularrarena. Ingurumena-ren eta justizia klimatikoaren aldeko mugimendu eta militanteek protesta egin zuten, birziklatzetik bizi diren enpresek ere bai, Europako Legebiltzarrean kexu handiak izan ziren... Baina ordurako Europako korpo-razi handienak –energia, eraikuntza, banka eta zerbitzu publikoen kontratak– biltzen dituen BusinessEuropek bere lobby lana burutua zuen. Batzordearen erabakiaren atzean zenbait adituk ikusi du TTIP/TAFTA itunari bidea errazteko ahalegina ere.

- Neurriak betetzen direla segurtatze-ko alarma sistema sortzea.
- Hondakin arriskutsu guztien tra-zabilitatea bermatzea.
- Ekoizleen erantzukizuna handia-gotzea koste-eraginkortasunezko gutxieneko baldintzak ezarriz.

Neurriok 2014an aldatzen joa-nak ziren, hasierako helburu ausar-tak orraztu aldi bakoitzean kimatuz, Zero Waste Europe eta European Environment Bureau elkarteek salatu zuten, Europako industria-buru handiak gogor ari zirelako bultzaka atzetik. Errausketa zorrotzago eragozteko planak ahuldu egin ziren, helburuak lortzeko epeak luzatu, idazkerak anbiguotu. Antza denez, ordea, Potocnik abian jarritako araudi deskafeinatua ere gehitxo zen hondakinak merke ekoiztetik eta horien tratamendua herritarrei kario kobratzetik nego-zioa egiten dutenentzako.

Kutsatzaile handien lobbya

Iazko azaroaren 25ean, Juncker Europako buruzagi jarri eta bereha-la, *Euractiv* webguneak ordura arte ezkutututako albiste bat plazaratu zuen: “Lobby batek proposatu du EBren legedia sinplifikatzea genero berdintasun eta ingurumen alorre-tan”. *Euractiv*ek albistearen iturritzat aipatu zuen BusinessEurope lobbyak, Europako patronal han-



“Garbi ikusten da nondik iritsi den presioa aireari eta hondakinei buruzko lege proposamen garrantzizkoenak erretiratzeko. Eta eskandalua are handiagoa izango da Juncker presidentea ikustea BusinessEuropek agenda atzerakoa saltzen ‘arau hobea egitea’ dela esanez. (...) BusinessEuropek ordezkatzeko dituen iraganeko korporazio kutsatzaileak. Hauek sustatzen duten agendak ez du onartu nahi ekonomiaren epe luzerako osasunak ingurumen politika sendoak eskatzen dituela”.

Euskal Herriko adibideetan islatuko bagenu Bruselan neoliberalak eman duten ostikada berria, esango genuke jokaldian tantoa irabazi dutela BusinessEuropek ordezkatu dituen zerbitzu publikoen kontratatzaile pribatu handiek (FCC, Urbaser...) eta errauskailuen kudeatzaileek (Zabalgardi, zentral nuklearrak bezala errausketarako labeak egiten dituen Sener...). Ez dute onartu nahi gero eta administrazio gehiago Usurbil, Oñati, Sakana edo Orendainen bidetik abiatzea, hondakinen kudeaketa hobe, merkeago eta garbiagoa egitea alegia.

Ekonomia Zirkularraren lege multzoa, orain pikutara bidali dutena, 2014ko uztailean onartu zuen orduko Europako Batzordeak. Lau hilabete egin ditu bizirik. Betiko erraustu ote duten? *The Guardianek* galdeturik, Janez Potocnik komisario ohia itxaropentsu azaldu da, esanez ziur dagoela proposamenaren mamia ez dela alferrik galduko, urteotan egindako lanarekin sortu eta zabaldu delako legerik gabe ere Europar aldaketa ekarriko duen olatua. ■

diak biltzen dituenak, Junckerri bidalitako txosten ordura arte sekretua; Batzordea egun gutxiren buruan gutuna argitaratzera behartuta aurkitu zen.

BusinessEuropek gomendioa da negoziatze bidean diren zenbait lege europar deusezte: administrazio kontseilueta genero berdintasuna lortzeko, amatasun oporren luzatzeak, finantzen gardentasuna hobetzeak eta airearen kutsadurari dagozkionak, gehi Ekonomia Zirkularrarena. Patronalak Timmermans azaroaren 20an entretatzion bost lege asmoo geldiarazteko eskaria. Kasualitatez, bost horiek berak dira hilabeteren buruan Europako Batzordeak mahai gainetik kendu dituenak.

Zergatik deuseztu legeok? BusinessEuropek iritzian “enpresa europarren lehiakortasunarentzako oztopo izango direlako”. Ekonomia Zirkularraren paketeak aplikatuz gero argudioa, hondakin gutxiago sortu, sortutakoa hobeto berrerabili edo konpost bihurtu eta birziklatzen baldin bada, aprobetxatu daitekeen ezer errauskailuetara joatea eragozten baldin bada... enpresa europarren lehiakortasunaren kalterako izango omen delako.

Ingurumenaren aldeko informazioa bildu eta presioa egiten saiatzen den Europako Ingurumen Bulegoko (*European Environmental Bureau* ingelesezko izen ofiziala, EEB) Jeremy Watesek esan du Junckers eta Timmermans kolpeaz:



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira

Xabier Letona



DANI BLANCO

Nik ez nekien ezer

KUTXABANKEKO ustezko irregulartasunen erdian ere ETA agertu da, eta denak adierazten du datozen urteetan diru eta irregulartasun ugari agertuko direla haren aurkako borrokaren aitzakitan, ez baita inongo sekreturik diru eta jardun ugari izan direla iparreko gerraren estoldetan.

Mario Fernándezen auziak epaitegietan zer emango duen zain, jarrera desagoki ugari antzeman daitezke operazioaren ingurumarian, batzuk legearen mugan direnak eta beste batzuk etikarenean. Ez dago zalantzarik ETAre jarduerak oso egoera gogorrek sortu dituela hamarkadatan eta, horren ondorioz, haren aurka jardundako askok Estatuaren mesede eta ordaina jaso dutela.

Mikel Cabieces behin-behineko PSE-EEtik kanpo utzi duten kide ohiarena izan daiteke horietakoa. Interesgarria litzateke, hala ere, mesede horien nor, noiz eta nola ezagutzea, seguruenik zerrenda horretan ere izango baita gehiago eta gutxiago jaso duenik, izan dirutan edo espezetan. Eta izango da baita jaso ez dutenen zerrendarik ere. Hausnarketa ugari sor daitetzke kasuaren bueltan. Esaterako, ea zergatik agintariek gizartearentzat onuragarri jotzen duten esparru batean –ETAre aurkako borroka– jardundakoak saritu behar diren lanpostu edo bestelakoen bidez –haien lansariak zituztenean–, eta beste esparru batzuetan aritutakoak ez, adibidez gisa eskubideen alde edo pobreziaaren aurka aritutakoak. Mario Fernándezek dio halakoak ohikoak zirela instituzio eta enpresa munduaren artean. Gutxienez, beraz, ondo legoke jakitea zein irizpide erabiltzen ziren.

NIK ez nekien ezer. Hori da gisa-koetan agertzen den lehen esaldia, eta hortik herritarren mesfidantza, ohikoan inork ez baitaki ezer. Baina ez, Mario Fernándezek bakarrik jakitea da sinesgarria ez den bakarra. Joseba Egibarren ahotik EAJk dio ez zekiela ezer, Fernándezena jarduera irregularra izan dela eta Cabiecesen lanpostuaz kontsultatu izan baltzaio, alderdiak ez lukeela onartuko Kutxabanken halako esku-hartzerik, hori ez delako bere zeregina.

Zergatik itzuli behar du norbaitek zerbait txarrik egin ez duela iruditzen bazaio?

Kontua ez da Fernández kontu kontari joan ote zitzaien jeltzailei, hori baino sinpleagoa da, Espainiako Bankuak Kutxabankeko Administrazio Kontseiluko akta ofizialetatik jakin duelako auziaren berri eta EAJk ere bere ordezkariak dituelako organo horretan. Gregorio Villalabeitia Kutxabankeko lehendakariak berak eman zuen aferaren berri Administrazio Kontseiluan 2014ko hondarrean, baina kontseilukideei ez bide zitzaien salaketa egin edo horren berri emateko adinako gaia iruditzen. Ez EAJ, ez PSE ezta PPko ordezkariak ere. Bakarrik Villalabeitiari. Horregatik izango da, akaso, Eusko Jaur-laritzako bozeramaile Josu Erko-rekari salaketaren kontu hau guztia oso bitxia iruditzea. Seguru Jaur-laritzak ere prentsatik izan duela lehen berria, beste edozein herritarrek legez.

Harriduratik haragoko adierazpen adierazgarriak badira politikarien artean. PSEko Jose Antonio Pastorren ustez, hobe dena alfonbrapean geratu izan balitz. Eta Borja Senperren aburuz, akatsa ez da eskatzen duenarena –lanpostua PPko buru ohi Antonio Basagotik eskatu ei zion Fernándezi–, ematen duenarena baizik.

FERNÁNDEZEN ustez ez da akatsik, baina –Villalabeitiak hala iradokita– hobe iruditzen zitzaien 6.000 euroko soldatetan Cabiecesi ordaindutako 245.000 euroak bere poltsikotik itzultzea Kutxabanki. Dirudunen eskuzabaltasuna itzela da. Hala ere, zergatik itzuli behar du norbaitek zerbait txarrik egin ez duela iruditzen bazaio? Hara bi hipotesi: bat, arazoa ezkutuan mantentzen jarraitzeko; horregatik, Villalabeitiak traizio egin diola sentitzen du orain Fernándezek, ordaindu eta hala ere salaketa jarri diolako. Bi, epaitegietan zigorrak izatekotan, dirua itzultzea aringarria delako.

Auzi honetan, alabaina, zuhaitzak basoa ezkututzen du beste behin ere. Cabieces auzia erabat desagokia izateaz gain, hemen larriena da izaera eta kontrol soziala zuten kutxek gaur egun izaera guztiz pribatua dutela. Fernándezek, gainera, bere akzioen %70 esku pribatuetan jarri nahi izan zuen, eta hortik etorri zen EAJrekiko talka. Baina ze demontre, seguru orain hobe dela Repsoleko goi karguen epelean, traidore eta esker txarrekoen artean baino.

Gainera, konpon daitezela Kutxabanken, ezta? Zergatik hainbeste zalaparta gune pribatu batean gertatzen denarekin? ■

ASTE HONETAKO zozketa



Argiako harpidedunentzat



Lar Zaldiak

Bi lagunentzako saio bat

LARTZANDIETA Baserria,
Urdaia auzoa, 44
Usurbil GIPUZKOA
www.larzaldiak.com

1



Leintz Gatzagako gatz museo

2 lagunentzako
bina sarrera

Dorletarako errepidea z/g.
20530 - Leintz-Gatzaga

emaila: www.leintzgatzaga.com

2



Donostiako Aquariuma

4 lagunentzako
bina sarrera

Carlos Blasco de Imaz plaza, 1
Donostia GIPUZKOA
www.aquariumss.com

3

Ekain berri



Ekainberri

3 lagunentzako
bina sarrera

Portale, 9
Zestoa GIPUZKOA

www.ekainberri.com

4



Illimani

liburua opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2447. Argia)

ATXASPI HOTELA

Pili Ikazuriaga Muniategi (Leioa)

SAN TELMO

Elgoibarko Euskaltegia Aek (Elgoibar)
Olatz Usabiaga Errazkin (Donostia)
Maialen Zabaleta Madinabeitia (Arrasate)

EKAINBERRI

Iruñe Iturbe Arriola (Aretxabaleta)
Jose Aierbe Mendizabal (Beasain)
Estitxu Kortajarena Ugarte (Tolosa)

CAPSULA -SOLAR SECRETS-

Javier Iraeta Narbaiza (Durango)
Pilar Otaegi Urruzola (Larraul)
Andone Barandiaran Arratibel (Pasaia)
Andres Odriozola Lizaso (Zarautz)
Isabel Etxeberria Ramirez (Astigarraga)

ARGIA KAMISETA

Leire Elizagarai Rodriguez (Gasteiz)

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 37 15 45 • gunea@argia.eus

www.argia.eus/gunea

gunea

argia



* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

© 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com